

uk

157. zenbakia / 2009ko maiatzaren 25a



Getxoko leku izenak

ezagutu, ikasi



Ibilbide Toponimikoak 2009

Zelan deitzen da toki hau? Zer esan nahi du horrek?
Zergatik deitzen da hau horrela? Ezagutzen dituzu Getxoko toki izenak?

Udaberri honetan, 9 ibilbidetan, ezagutu Getxoko toponimia.

Martxoak 17	18:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Abasa	1,6 Km
Martxoak 27	18:00	Bolua-Neguri-Erreaga	1,4 Km
Apirilak 1	19:00	XI. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharretan hasita	1 Km
Apirilak 7	19:00	Bolua-Santa Koluma-Bolua-Abasa	2 Km
Apirilak 21	19:00	Telletek-Erreaga-Ariganaga-Aiamota-Biltebail	3 Km
Apirilak 30	19:00	Biltebail-San Inazio-Neguri	3 Km
Maiatzak 5	19:00	XI. mendeko euskararen Ibilbidea: Portu Zaharretan hasita	1 Km
Maiatzak 13	19:00	Santa Ana-Romo-Neguri-Abasa	1,6 Km
Maiatzak 21	19:00	Andra Mari-Sakuskune-Dillo-Andra Mari	5,9 Km
Maiatzak 29	19:00	Andra Mari-Dillo-Galra-Andra Mari	5,7 Km
Ekainak 1	19:00	Biltebail-Jabia-Zurgatzena-Erreaga-Ignatze	4,1 Km
Ekainak 9	19:00	Bolua-Neguri-Erreaga	1,4 Km
Ekainak 17	19:00	Telletek-Erreaga-Ariganaga-Aiamota-Biltebail	3 Km

Ibilbideak euskaraz izango dira



Eskatu informazioa Udal Turismo Bulegoan edo deitu 688 635 350. Izena eman behar da telefono honetan: 688 635 350




UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIBIDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan, Ainhoa Lores
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega
KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Oruela
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko parte da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Gimnasia egiteko makinak, Areetan.
- LEHEN ETA ORAIN. Gorlizko Eliza.
- TALAIJA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Joxe Belmonte, Leioa.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Athletic, eup!
- ARGAZKIA. Erromoko futbol zelaia.
- BERBETAN. Roberto Moso.
- FOTOGRAFIA. Peru Isasi Sarria.


KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Ikusezazu.com.
- MUSIKA. Leioa Pop-Rock lehiaketa. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Larrabetzuko literatura jardunaldiak. Liburuaren erreseinak.
- KIROLAK. Lamiakoko Mundialittoa.
- ELKARRIZKETA. 96 *Unicornios* Antzerki Taldea.

AMAITZEKO

- NORA JOAN. Motagane Txakolina, Erandio.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Mamarru Futbol Taldea, Bittor Egurola.
- AITORMENAK. Katixa Agirre.

Azala: Asier Mentxaka



30 Roberto Moso

Berbetan

Zaramaz bete dira barriro ere eszenatokiak; talde mitikoaren emanaldi mitikoak itzuli dira.



11 Joxe Belmonte



54 Katixa Agirre

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Gripea

Esan nuen aurrekoan. Kazetaritza gero eta okerrago dago. Ez dogu asmatzen. Orain dela urte batzuk Ozono geruza izan zan. Danok hilko ginen epe laburrean eguzkiak erreta. Urteak igaro, eta hementxe gaude beti bezala. Ozonoa berreskuratu da.

Horren ostean, aldaketa klimatikoa. Beroak itota amaituko dogu dirudienez. Pasatu dogun negua ikusita, glaziazio barri baten aurrean egongo garen ez dakit bada. 50 urtetan negurik hotzena izan da. Tira. Azkenengo astetan, A gripea, 'txarri gripea' daukagu. Barriro ere, gizasemeentzako mehatxua, izurritea. Orain birusa ez dela hain bortitza erakutsi dute. Beste adibide batzuk badaude. Gogoratzen zarete 'hegazti gripeagaz', edo 'behi zoroen' gaitzagaz? Danek gauza bat konpartitzen dabe: hedabideek zabalduetako alarma. Gizaki oro hiltzetik, ahazte sakonera. Holan jarraituz gero hilko dan bakarra, kazetaritza izango da.

gu geu**Lehoi izoztua**

Masa mugimendua berpiztu egin da Bizkaian. Industrializazio garaian bezala, herritarrek kaleak hartu dituzte. Baina oraingoan ez dira langileon eskubideen alde mugitu, ezta munduko gosearen kontra ere. Diotenez, sentimendu bat izan da herria kalera atera duena, kolore batzuek sortutako sentimendua. Milaka gazte, ume eta atso-zahar batu ziren maiatzaren 13an Athletic animatzeko; oihiak (edo orroak) bat ziren. Berdin zuen azalaren koloreak, aukera sexualak, ideologia politikoak edo erlijioak. Egun batez bat egin zuten.

Askorentzat negar egiteko modukoa izan zen 13koa. Eta ez gara, futbolarien mailaz ari; jendea Bilbon, Valentzian, Getxon zein beste lekutean izandako jarrera da hunkitu zituena. Aitortu behar dugu, harritzeko modukoa izan zela, bai; hala ere, horrek ez du esan gura pozik gelditu garenik. Polita da herria pozik, batuta eta kalean ikustea, baina beste askotan ere ikusi gura genuke. Zorionez, mundua ez da San Mamesko edo Mestallako atean amaitzen.

Norgehiagoka eta gero, izoztua lotu da lehoia. Urrun lotu da zaleen berotasuna. Ekaitzaren ostean barealdia etorri ohi da.

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Denon ahotan dagoen krisia aukera moduan ikusten dute Gorka Aurrek eta Pablo Cunsolok. Hona hemen, euren arrazonamenduaren lehenengo partea.

Krisiaz baliatu

Edozein toki eta unetan ez dugu krisia hitza besterik irakurri, entzun eta esan. Egoera, 2009ko urte guztian zehar gero eta txarragaroko, okerragaroko, joera dakarrela adierazten zaiguna ikusita, benetan ere larri azaltzen da; beraz, hori guztia aintzat hartuta krisiaz ez den beste gai batzuek jardutea guztiz desegokitzat begitantzea gerta daiteke.

«Gure paradigmak aldatubehar ditugu»

hitzen egiten. Lan mundua aldatuz doakigu, baina horretaz ez garelako ohartzen aitortu besterik ez dago. Iraganean izandako jokoa-arauek, egun ez dute lana aurkitu-eta lanari eusteko baliagarritasunik. Eskoletan eta unibertsitateetan irakaskuntzarako metodologia zaharkituz jarraitzen dute. Irakaskuntza ofizialak ez ditu lan munduan aspalditik enpresek eskatzen dituzten beharrezkoak asebetetzen. Berrikuntzaren aldiari gaude. Hala ere, lan mundurako enpresek eskatzen dituzten trebetasun eta gaitasunen arloei dagozkien berrikuntzak, gero eta lehiatsuagoak dira. Adibide bat baino ez aipatzearen "planifi-

katzen jakitea, harremanak izaten jakitea eta erronkei aurre egiteko jarreraren jabe izatea" egun erabat existitzen ez diren eskumenak dira, ondorioz, trebetasun horien jabe ez izatea da, egia esan, lan mundutik baztertuta gelditzearen arrazoi nagusietakoa.

Japoniarrek "krisia" hitza ondo zehaztutako ikur birekin idazten dute: "Anabasa" (nahaspila, ordenarik eza, kontrolrik eza, araurik eza) eta "Aukera" (denbora eta tokiaren komenientzia).

Egungo jakintza hamabi hilabeterik behin bikoizten da, eta 2010etik aurrera, laurogei egunik behin biderkatuko dela aurreikusten da. Horrek guztiak aldaketa-prozesuan azkartzea ekarriko du, trantsizio gehiago eta krisialdi ugariagoak izanez. Beraz, gure paradigmak aldatu egin behar ditugu eta gogo bizia egonkortasunetik barik aldaketatik lortzen ikasi; ez status quotik, berrikuntzatik baizik.

Historikoki krisialdiak munduan izan diren aldaketarik garrantzitsuenen atari izan direla jakitun izan behar dugu; krisi orok aldaketa sorrarazten duelako, aldaketek krisialdi berriak eta edozein krisialditan anabasa kuotak badaude ere, aukera berri handiak ere azaltzen direlako.

Tamalgarria, gizakia aldaketen aurrean aurkari agertzen denez, pertsona gehienak krisia bere ikuspegi ezezkorretik baino atzematen ez dutela ikustea da; beste instantzia batzuetatik aldi kritikoa gainditzeko irtenbideak eskaini eta emateari so egonez esparru pertsonaletik egoerari aurre egiteko ezer gutxi edo ezertxo egin gabe uneoro pasibotasunez kexati agertu eta krisiari probetxua ateratzearen pribilegioa jakitun gutxi batzuen esku uztearen errakuntza nabarmenean eroriz.

Gaixotasun batez hitz eginda bakarrik inork horrelako egoerarik hobe ezin dezakeen bezala, gu ere ez gara egoera honetatik irtengo, egoeraren larritasunaz etengabe hitz egiteaz baino arduratzen ez bagara.

(jarraituko du)

Gorka Aurre & Pablo Cunsolo
(Prakagorri S.L.- ILVEM Euskadi)**[irudia]**

2009KO MAIATZA, AIREETA

Bat bi, bat bi... soinketan alai / Norik esango luke pertsona nagusiak horren erraz eta merke sasoiari ipiniko zirenik? Getxoko Udalak pertsona nagusiek soinketa egiteko hamaika aparatuz osatutako "Kirol zirkuitu osasuntsua" ipini du Aretako Kaian. Poz-pozik ikus daitezke bertara hurretratzen direnak eta ez hirugarren adinekoak soilik, adin guztietako jendeak izaten du tramankulu hauek erabiltzeko gogoia. Ekipamenduak bihotza, birrikak eta giharreak indartzeko, zein luzatze edo gorputzaren koordinazio orokorrerako ariketak egitea ahalbidetuko du. / Argazkia: **Astier Mentxaka**

EROSI EUSKARAZ


aurrealdea

atzealdea



Eskatu zure betiko dendan,
erosketak idazteko koadernotxo

... baina euskaraz.



Euskara Zerbitzua
 Getxoko Udala | 94 466 00 10
 euskara.zerbitzua@getxo.net
 www.getxo.net

[lehen]



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA

[orain]



ASERMENTIXAKA

Iraganez doa denbora* beti / GORLIZKO ELIZA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > haize-errotak ere geldi...



2009ko maiatza

Testua: **Josu Arroyo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Aita izena... (Amuriza)

Haize-errotak ikusten ditut,
umezurtz, haizerik gabe.
Haize guztiak gorde ei dira:
zakar, goxo zein suabe.
Haizeak joan, eta goietan,
lainoa jaun eta jabe.
Laino beltza da, laino iluna;
bertan dugu, parez pare.
Errotak geldi daude gaur, baina
giroa ez dago bare.

Harrizko errota beldurgarriak,
hormigoiaien labela.
Itsasgizonen soa haiei,
porturatzeaz direla.
Guztia lohituz joan da gurean,
geratu arte horrela.
Okerrena da, errotak legez,
hausporik gabe gaudela,
denok batera putz egiteko
ahalmenik ez dagoela.

Itsasaldetik etorri ohi da
haizeterik handiena.
Itsas hondoa aztoratzean,
guztiz aldatzen da dena.
Zurrumbiloa sortuko ahal da,
inoizko erraldoiena,
haize-errotak beraiek ere
dar-dar jartzeko gai dena!
Itsasoari begira nago,
hortxe dut itxaropena.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

uk zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Ameztia 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

getxo > skate ikastaroak eskainiko dituzte Arrigunagako "kanteran"



Arrigunagako "kantera" ezagunean izango dira ikastaroak

Bizimodu osasuntsua eta kirola kalean praktikatzeko ohitura bultzatzeko asmoz, LA KANTERA SKATE ESKOLA sortu barri du Getxoko zenbait patinatzailek. Euskal Herriko skate eskola ofizial bakarrenetakoa da eta Arrigunagako hondartzan dagoen "kantera" ezagunean behar egingo dute. Maila eta adin guztietako jendearentzako ikastaroak egiteaz gain, skateagaz zerikusia duten hainbat ekintza antolatzeke asmoa agertu dute eskolako lagunek: erakustaldiak, eskoletara bisitak, udalentsako ekimenak... Egutegiak zehaztuta ez badaude ere, udan ikastaroak antolatuko dituztela iragarri dute. Iraupen eta prezio ezberdineko ikastaroak egongo dira, eta guztietan, lehenengo eskola doakoa izango da. Eskolari zein ikastaroerik buruzko informazioa, www.skateskola.com web orrian eta 696 23 14 97 telefonoan aurki daiteke. o

EHU > euskara eta komunikazio gizarteaz arituko dira udako saioretan



EHUko udako eskaintzaren barruan egongo da soziolinguistika ikastaroa

EHUko XXVIII. Uda Ikastaroetako eskaintzaren barruan, *Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarteak?* izeneko ikastaroa eskainiko dute Donostiako Miramar Jauregian, ekainaren 22, 23 eta 24an. Ikastaroaren helburuak, komunikazio gizarte aroan euskal gizartearen jarrerak ezagutzea; etorkizuneko jokaerak irudikatzea, kultur identitatearen eraikuntzan komunikabideek duten papera aztertzea eta tokian tokiko hizkuntzen lekuaz eztabaidatzea dira. Ikastaroan parte hartuko duten irakasleen artean, Josu Amezaga Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle getxoztarra izango da. Parte hartu gura duenak, udako ikastaroen webgunean eman beharko du izena. Horrez gain, www.soziolinguistika.org/ehuikastaroa gunean informazio gehiago eskura daiteke. o

saiasz getaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

..harria **...lehenengo garaiak...** **...itsasoa**

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

ukagenda > eskualdeko euskarazko ekimenak zure e-mailean!

uk Agenda
urbe kostako muskal kulturaren agenda
getxo • erandia • leioa • berango • supela • urduliz • plentzia • gorliz • plentzia • leioa

zuzeneko ekitaldiak: ukagenda@aldizkaria.biz

AURKEZPEN BERBAK
Hau da uk 1978ko Kostako Antolatza Berria, UKagenda delu duguna. Helburu gurea da: gure eskualdeko euskarazko ekimenak erabiltzeko bidea ematea. Gure helburua da: zure ziberlagunen artean UKagenda honen berri zabaltzea ere eskatu nahi dugun, ahalik eta lagun gehienengana ailegatu nahi dugun eta. Harpidetza egiteko (eta ekitaldi) ukagenda@aldizkaria.biz helbidera mesu bat bidali baino ez da egin behar. Ondo ibi!

Datozen ekitaldiak **2009ko Maiatza 8**

Getxo. Xabier Paya eta Ana Urrutia irakaskuntza elebidunaz berbetan.
2007ko urtarrilaren 30a, martxoaren 19:00, Villasanteko Kultur Etxean.
Sarrera: doan. Antolatzailea: Getxo Udaleko Euskara Zerbitzua.
Seme-alabek eskolan matrikulatzeko epa laster helduko dela ikusita, horren gaineko hitzaldi bakia antolatu du Getxo Udalek. Horretarako, gonbidatu bereziak eskaini ditu Villasanteko Kultur Etxera, euren esperientziaren berri eman dezaten: Ana Urrutia eta Xabier Paya. Lehenbizikoak, ama izatearen esperientziatik egingo du berbe eta bigarrenak euskaraz ez dakien familia bako semearen ikuspegitik. Haurtzaindegiko zerbitzua egongo da, eta baita ipuin kontalaria ere. Hitzaldiak gaitelariak izango dira eta gurasoei eskuliburu bat oparituko zaie.

Agenda jaso gura baduzu, ukagenda@aldizkaria.biz helbidean eskatu baino ez duzu

mankomunitatea > udalekuetan izen-ematea hilaren 29a arte



Plentziako hondartzan egingo dituzte udalekuetako zenbait ekintza

Uda heltzeaz dago! Zikloiz eta euri zaparradaz betetako negua alde batera utzi eta eguzkiaren eta itsasoaren gozatzeko ordua heldu da. Horretarako, udaleku irekiak antolatu ditu Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak. Urduliz, Lemoiz, Plentzia eta Gorliz 3-5 eta 6-12 urte bitarteko umeentzako ekintzak eskainiko dituzte. Kayak, surf, eskalada, tailerrak eta beste hainbat ekintza dibertigarri izango dira. Herriaren arabera, ordutegia eta lekua ezberdina izango da, nahiz eta ekintza guztiak goizez egingo diren. Izena emateko epea maiatzaren 18tik 29ra bitartean egongo da zabalik, gura duenak, aipatutako herrietako Kultur Etxera hurreratu beharko du. Dena den, informazio gehiago behar izanez gero, 94 676 26 74 telefonora dei daiteke. ○



“Psikoanalisi terapia ona da idazkuntza; nire burua hobeto ezagutzen laguntzen dit”

Joxe Belmonte > Leioako Hezkuntza eta Euskara arduraduna

Argi izpiek kristala zeharkatu eta erraz argizatzen dute Joxe Belmonteren bulegoa. Bilbotarra den arren, 1987. urtean hasi zen euskararen alde beharrean Leioan. Hasieran, Euskaltegian eskolak ematen ibili zen; ondoren, euskara teknikari izatera pasa zen eta gaur egun, Leioako Udaleko Hezkuntza arduraduna da: “Euskararekiko jarrera ona dago Leioan, nahiz eta erdaldun kopurua handia den”. Argi dauka zeintzuk diren euskararen normalkuntzaren bidean eman beharreko pausoak: “Aisialdian eta kirolean egin behar dugu indar gehien. Umeek zein nagusiek partehartze aktiboa izan behar dute; ez da nahikoa euskarazko antzerki obra programatzea, hartzaileak izateaz gain sortzaileak izan behar baitira”. Belmonte bera, euskaldun sortzailea da; lau eleberririk kaleratu ditu, hiru euskaraz eta bat gazteleraz. Gustura sentitzen da idazten, psikoanalisi terapia ona da: “Nire burua hobeto ezagutzen laguntzen dit”. Aldaketa fisikoek, izaera aldaketa ekarri ohi dute sarri. Leioan ere, horrelako zer edo zer atzeman du: “Hona heldu nintzenean, Sabino Arana Etorbidea eta lau auzo txiki osatzen zuten Leioa; Avanzada ere ez zen. Euskaltegiko estolderia sistema zaharkitua zegoen eta tren geltokia pikutan gelditzen zen. Orain bizigarriago eta hobeto komunikatua dago dena. Izaera aldetik, herri euskaldun txikia izatetik, hiri erdaldun kosmopolita izatera igaro da”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografia**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiatze kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •

Udarako kultur hitzorduak

Ohiko jaialdiez eta ekitaldiez gainera, **Kultur Etxeak “ekimen barriak”** aurkeztu ditu udaldiari begira, udalerrira **“kultur topaleku bihurtu eta ekonomiari bultzada eman asmoz”**

Ohiko sasoiaren Natura loalditik itzartzen den legez, esan liteke berbizen dela kultur ekitaldien eskaintza Getxoko udabari-udaldian. Hala, Getxoko Kultur Etxeak ekainetik irailera bitartean antolatuko dituen ikuskizunen eta ekimenen barri eman du oraintsu. Horien artean, ohiko egitaraua osatzen duten ekitaldiez gainera, aurtengo zenbait jarduerari barri iragarri dituzte, oro har, musika ikuskariei lotuak.

Eki amandreak gehien berotu ohi duen urte sasoiari begira eskainiko du Getxoko Kultur Etxeak kultur eskaintzarik zabalena eta aurtengo nobedaderik nagusienak ere garai horretarako iragarri dituzte. Egitarauaren aurkezpenean Getxoko alkate Imanol Landak azaldu zuenez, *“zabala, kalitatezkoa eta Euskadi mailan eta haratago erreferente den programazioak adin eta giza talde guztiak asetzeko du helburu; eta gobernu taldearen lanaren adierazgarri ere bada, alde batetik, kultura topagune legez bizi duen udalerrira dinamiko bihurtu gura duelako Getxo, eta bestetik, bigarren maila batean, programazio hori ekonomiari bultzada eman asmoz osatu delako; batez ere, kontuan hartuz udan, jaialdiek erakarritza, udalerrira hurreratzeko diren bisitarien ekarria”*.

Hori jomuga, lehenengo eta behin urtero-urteroko ekitaldi egonkor nagusien barri eman zuten udal kultur arduradunek, besteak beste: musikari dagokionez, Blues Jaialdia (ekainak 12-14), Jazz Jaial-



Benito Lertxundik uztailaren 17an eskainiko du kontzertua

dia (uztailak 1-5), Folk jaialdia (irailak 3-6) eta Habanera Itsas-kantu jaialdia (irailak 11-13); azoka eta aretoen inguruan, Eskulangintza Azoka (ekainak 5-7), San Lorentzo Azoka (abuztuak 10), Erdi Aroko Azoka (irailak 18-20), Komiki eta

«Ekitaldi barrien artean daude: Benito Lertxundi, M-Clan eta Pedro Guerraren kontzertuak eta Katuska zarzuela»

Manga Aretoa (azaroak 27-29) eta GetxoArte (abendua 4-6); gainontzekoen artean ezin ahaztu, Balkoitik Balkoira (ekainak 19), Euskara Showa (ekainak 19-21), Gaurik Laburrena (uztailak 6-7), Folklore Jaialdia (uztailak 21-23), Antzerki Jardunaldiak (urriak 9-18),

Euskal Kulturarten Jardunaldiak (azaroak 20-abendua 3) etab.

Ostera, egitarau egonkorreko horiez gainera, ekitaldi barriak iragarri dituzte, gehienak musikari lotuak. Horietako batzuk iaz izandako arrakastaren ondorioz aurtengo eman gura dieten bultzadaren ondorio dira, barbarako: tokiko pop-rock taldeen sustapenerako Getxo Sound Jaialdia (ekainak 26 eta urriak 2) eta Getxoko Abesbatzen Eguna (ekainak 21). Bestalde, “bereziki gazteei begirako” 6 bat kontzertu ere iragarri dituzte, zehaztuta daudenak: Murtziako M-Clan (ekainak 27), Katuska zarzuela (uztailak 10), Pedro Guerra (uztailak 11) eta Benito Lertxundi (uztailak 17). Ezin aipatu barik utzi, Kantuketan (ekainak 19-20) ekimenaren barruan, ziurrenik musika emanaldiak ere egongo direla (zehaztu barik). ○

Uriolen arriskua saihesteko

lau milioi euro saneamendu sarea konpontzeko



Lanen lehenengo atala Erromori eta Ereagari egokituko zaie

Gobernu taldeak babestutako Udal Saneamendu Plana aurkeztu barri dute Getxoko alkate Imanol Landak eta Hirigintza zinegotzi Joseba Arregik. Planaren arabera “uriolak jasateko arrisku handien duten gunetan estolderia hobetzeko 4 milioi euro” bideratuko dituzte. Adierazi dutenez, *“Planaren ekintza nagusiek uriolak behin-betiko saihesteko neurri eraginkorrak hartu ahal izateko prozesua zabalik mantentzen jarraitzea ahalbidetzen dute”*. Aipatu ekintzen artean garatuko diren lehenengo lanak Erromon eta Ereagan egingo dira (kolektore nagusiak barritu) eta horretarako aurrekontua 2 milioi eurokoa da. Ostean, Neguriko Makaleta-Elkano-Akazia gunetarako egitasmoa gauzatuko dute (uztaila aldean) eta horretarako aurrekontua 550.000 euro-

koa da. Urriari Goi eta Behe Maidagane-ko estolderia hobetzeko egitasmoaren txanda izango da (945.000 euro), eta orduan amaitu asmo dute ere Ollarretxe eta Sarrikobaso (Aldapa auzoa) arrorako egitasmoa. *“Andra Maritik Baldesekeo isurialderainoko ibai zati osoa aztertu dugu, eta bitarte horren osotasunean jardungo dugu”*, azaldu du Arregik.

Bestalde, udal agintariak jakinarazi dutenez, Eusko Jaurlaritzaren Uraren Euskal Agentziak (URA) Gobela ibaian egiteko premiazko ekintzak jasotzen dituen bi egitasmo osatu ditu, zelanbait arrisku handiena duten gunetan garatuko direnak, hain zuzen, Salsidu-Zubieta (1.450.000 euroko aurrekontua) eta Etxezuri-Larrañazubi (4.637.000 euro) inguruneetan. ○

MAIDAGANEKO LANEN AURREKONTUA 936.325 EUROKO IZAN DA

Udaletik adierazi dutenez, “bertoko bizilagunen ekarpenak kontuan hartuz”, Maidaganekeo parkean eta inguruetan (Getxo) egin dituzten zaharbarritze lanen aurrekontu osoa 936.325 eurokoa da. Lanen (zorua lauzatu, hiri apaingarriak barritu, argiztatu, espaloiak zabaldu, oinezkoen pasabideak birmoldatu, arbola gunea eta jaietarako eremua zabaldu etab.) ondorioz, parkeak eta inguruak “oinetakoentzako bide hobek” dituztela azaldu dute. Horiez gainera, umeei zein zaharrei begirako jolasgune eta kirol gune barriak ere ipini dituzte. Bestalde, Andra Mari elizako sarrabideak ere hobetu dituztela azaldu dute udal agintariak eta inguruetako argiztapena eta hiri apaingarriak ere barritu dituztela. Halaber, Gabriel Ramos Uranga kaleko autobus geltokitik kiroldegiko aparkalekurainoko bitartea eskaiera-pasabidez lotu dute.

SANINAZIOETAKO ARGAZKI BILDUMA

Algortako San Inazio jaietako argazki bilduma osatzeko asmoz, Jai Batzordeak herritar orori dauzkan argazkiak helarazteko deia egin dio; irudiak batzordearen bitakoran egongo dira ikusgai.

EHUN BIZIKLETA MAILEGUAN URTE OSOAN

“Getxon bizi” ekimena ipini du martxan Getxoko Udalak, hau da, bizikletak maileguan hartzeko Bizkaiko lehenengo zerbitzu automatizatua. Ekimena aurrera eramateko 120.000 euro zuzendu du Udalak, eta zerbitzua udalerrira 12 gune estrategikotan eskainiko dute. “Txirrindulari eguneroko garraio legez sustatzeko helburuagaz”, maileguan dauden 100 bizikletak urte osoan erabili ahalko dira (urteko txartela getxoztarrentzat 10 euro; eguneko 2 euro).

Informazioa:
www.biziprest.com/getxobizi
edo 900 84 03 45

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe 13 / Tf. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illaeta kalea 1 • ALGORTA



Pedro Barrenetxea > Aixerrota institutuko Agenda 21eko koordinatzailea

“Getxo herri aurreratua bada ere, bizikleta garraiotzat bultzatze kontuan atzean lotu da”



Pedro Barrenetxea

Klima aldaketari aurre egin eta sentzibilizazioa lantzeko ikastetxeen ekimenak saritzeko Ihebek eta Hezkuntza sailak antolatzen duten sariketa irabazi du Aixerrota BHI Institutuak “Bidegorriak eskatzeko bizikleta martxa” ekimenagatik. Ekimena Eskola Agenda 21 proiektuaren barruan landu dute eta garraio jasangarriaz gainera lau urteotan energia, zaborra eta ur kontsumoaren gaineko arazoak ere jorratu dituzte: diagnostikoak eginez eta konponbideak bilatuz.

—Zertan datza ekimen saritua?

—Guk garraio jasangarriaren inguruan lantxo bat egin dugu urtetan. Asmoa ikasleen, gazteen artean bizikletaren erabilera bultzatzea zen, eta konturatu ginen Aixerrotara joateko, adib. Algorta erdigunetik, azpiegitura, bidegorria, falta genuela. Aprobetxatuz irailaren 22an izaten dela Europako Mugikortasun Astea, Auto bako Eguna, bizikleta martxa antolatu genuen institututik udaletxeraino, Udalari instituturainoko bidegorria egin zezan eskatzeko. Proiektu hori guztia prestatu, bultzatu, antolatzea izan da, eta urtero egin dugu bizikleta martxa. Irteera bakoitzeko bideoak, argazkiak egiten genituen, ikasleak bizikletan

ibiltzeko arauak jorratu etab. Hori guztia lehiaketara bidali eta 1.500 euroko saria jaso, ingurumen proiektuetara bideratuko duguna. Izan ere, proiektua Eskola Agenda 21 ekimenaren barruko zerbait izan da.

—Eta Udalak zelan erantzun du?

—Aurreko alkateagaz batu ginenean esan zigun prest zeudela gure eskaera kontuan hartzeko, baina, lana egin behar genuela, txosten bat, esanez: ibilbide zehatza, eragozpenak, zeintzuk ziren proposatzen genituen aldaketak... Eskatutakoa ikasleak osatu, eta aurkeztu genion. Kontua da hauteskundeak izan zirela eta alkate barria etorri zela, horrenbestez, hurrengo urtean barriro egin genuen martxa alkate barriari proposamena

helarazteko. Esan behar dugu Udalean beti harrera hona egin digutela, ez dugula arazorik izan. Orain dela urtebete edo Udalak Getxoko bidegorrien sarea luzatzeko proiektua onartu zuen; bertan dioenez, 2009tik 2011ra arte Getxon bidegorri sarea egingo da; ikastetxe, kirol gune, kultur etxe, auzo-erdiguneak e.a. lotzeko.

—Aurten ere martxa egingo duzue?

—Bai, baina plana onartu zenetik, egingo dutenaren zain gaude. Iaz egin legez egingo dugu aurten ere: udaletxera joan beharrean, beste ikastetxe batzuek elkartu, lehen barririk joaten ginen, eta bizikleta martxa

«Datorren urtean, ikusten badugu bidegorriena ez doala, barriro udaletxera»

herri osotik egin. Datorren urtean, ikusten badugu bidegorriena ez doala, barriro bere joango gara udaletxera. Amaitzeko, aukera hau baliatu gura nuke garraibide legez bizikletaren abantailak aipatzeko: osasuntsua da (egonean egoneko bizitza egiteak gizentasun arazoak dakartza, beraz...), ekologikoa da, merkea, bizkorra (5-7km-ko tartean hirigune pilatuetan garraio azkarrena dela diote ikerketek), bizikletentzako azpiegiturak egitea autoentzakoak egitea baino askoz merkeagoa da, aparkatzeko 15 aldiz leku gutxiago okupatzen du e.a. Herri aurreratuenen adierazgarri da; horietan konturatu dira txirrindulak garrantzi handia duela garraio legez, bere erabilera sustatzeko politikak bultzatzen ari dira... Getxo herri aurreratua bada ere, kontu horretan atzean lotu da, eta bultzada bat behar du. Bizikletak mailegatzeko zerbitzua martxan dago, baina... Guk ikasleen artean bultzatzen duguna ez da aisialdiko erabilera, eguneroko ibilbideak egiteko garraibide legez baino. ○

VII. Euskal Eguna

Dantza, kanta eta bertsolaritza eskoletan ikasitakoa erakutsi zuten milaka ikaslek



3.425 ikaslek parte hartu zuen Euskal Egunaren jaietan

Hilaren 15ean antolatutako Euskal Eguna izeneko jaietan erakutsi zuten Getxoko ikastetxeetako 3.425 ikaslek ikasturtean zehar dantza, bertsolaritza eta kanta-ikastaroetako eskoletan jorratutakoa eta ikasitakoa. 6 eta 12 urte bitarteko ikasleen erakustaldiak eta ospakizuna bera gune bitan banatu zituzten aurten; alde batetik, Faduran batu ziren 1.078 haur San Petrike, Esku-dantza eta Txulalai dantzatzeko eta Katuen Testamentua, Euskal Herrian Euskaraz eta Iluntzean abestiak kantatzeko, eta bestetik, Andres Isasi Musika Eskolan 300 bat gaztetxok bertsolaritza eskoletan landu-

tako antzerki saioa eskaini zuten. Horrez gainera, azken horietako jaietan bertso-jolasak, “Balendin Txiki” III. Bertso-paper lehiaketako sari banaketa eta Ekhi Erremundegik, Odei Barrosok eta Xabi Payaren bertso saioaz gozatu ahal izan zuten.

Alabaina, jai aurretik egindako lanaren eta ahaleginaren isla baino ez da, urtean zehar botatuko izerdiaren eta ikasitakoaren erakusgarri. Horregatik, ezin esan barik utzi, ikasturtean zehar dantza eskoletan 1.899 umek partu hartu duela, kantu eskoletan 745 ikaslek eta bertsolaritzakoetan 781 gaztetxok. Eutsi lanari! ○

XXVII. ESKOLA ANTZERKI JARDUNALDIAK

Getxoko hainbat ikastetxetako ikasleek Getxoko Ume Antzerkia Bultzatzeko Elkartearen (GUABE) lantegietan ikasturtean zehar ikasitakoaren erakustaldia eskainiko dute hilaren 30ean eta 31n Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Erakustaldian, ohi legez, lantegietan gazteek eurek sortutako muntaiak antzeztuko dituzte.

ITSASOAREN ALABA LANAREN AURKEZPENA

Itsasoaren Alaba (Josu Martinez, 2008) dokumentalaren aurkezpena egingo dute Algortan hilaren 28an (Villamonte kultur etxea, 19:00). IPES elkarteak eskaintzen duen Julio Araluze algortarraren beka baliatuz osatu dute dokumentala, GALEK hildako Mikel Goikotxea *Txapela* zenaren Haizea alabak aitaren arrastoaren bila egiten duen ibilbidea du kontagai.

Informazioa: www.itsasoarenalaba.org

ESKULANGINTZA AZOKA EKAINAREN 5ETIK 7RA

Eskulagileen lana erakustea, zein euren ekoizpenen salmenta eta erakusketa bultzatzea helburu duen Azokak XXVI. ekitaldia beteko du aurten. Getxoko Eskulangintza Azoka ekainaren 5etik 7ra bitartean egingo da Areetako Geltoki plazan eta Ibaiondo kalean (11:00-14:30 eta 17:00-21:00).

ELKARTASUN EGUNA ALGORTAN, HILAK 30

Algortako Elkartasun Eguna (hilak 30, Portu Zaharra) antolatu dutenek adierazi dutenez, “*elkartasunerako 22 arrazoi ditugu momentu honetan Algortan... Pertsona eta herritar izateagatik merezi dituzten eskubideak ukatu gura izan dizkiete... Horregatik, beraiei eta beraien senide eta lagunei elkartasuna adierazteko batuko gara...*”. Hori helburu koadrilen herri kirol txapelketa (11:00), herri bazkaria (14:00), ginkana (16:30), teknobertso-poteoa (18:00) eta kontzertuek (20:00) osatzen dute egitaraua.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970az** geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • Tf. 94 460 71 62 / Telletxe 15 • Tf. 94 460 42 44 • ALGORTA

Basilio Antunez > San Juan Bautista abesbatzako zuzendaria

“Gazte, barri eta energiaz betetako abesbatza honen 1. go txapelketan bizitakoa oso hunkigarria izan da”

Duela 45 urte sortu zen arren, Leioako San Juan Bautista abesbatzak joan den urtean aldaketa handia jasan zuen udal kontserbatorioko zati izatera igaro zenean. Orain, lehenengo saria jaso dute Aragoiko Ejea de los Caballeros-ko XXXIX. abesbatza lehiaketan.

—Zer dela eta aldaketa?

—Aldaketa duela hamar urte sortutako kanti-ka haur abesbatzak bertan hezita eta ikasitako gazteen belaunaldia zuen eta gurera sartzeko asmoagaz egin genuen. Neska eta mutil hauek 16 eta 20 urte bitartekoak dira eta kantatzen jarraitu gura zuten. Guri ordea, gugaz mantentzea izugarri interesgarria eta zoragarria iruditu zitzaigun; beraz, abesbatza barria sortu beharrez, gurago izan genuen, herrian zegoen koro honi bultzada ematea, aire barria emanaz eta era berean, herrian bertan tradizionala edo oso ezaguna zen abesbatza desagertarazi baino, beste zentzu batez berpiztuz.

—San Juan Bautista Abesbatzak mantendu du beti bere oraingo izena?

—Bai. Izatez, Leioako patroia San Juan da eta zentzu horretan, nahiz eta koroak estetikoki eta egiten duen errepertorioagatik nahiko iraultzailea izan, herrian ezaguna izan da urte eta belaunaldietan zehar.



San Juan Bautista abesbatzako kideak

—Oroitzen duzun emanaldi anekdotiko edo esanguratsuren bat?

—Aragoiko Ejea de los Caballeros, Zaragozan, oraintxe lortutako saria, gogoratuko nuke duda barik. Gazte, barri eta energiaz betetako abesbatza honen 1. txapelketa eta saria izan da, asteburu hartan bizitakoa oso hunkigarria izan da.

—Aurrerantzean emanaldi gehiago prestatuta dituzue?

—Ekainaren 11an Kultur Leioako aretoan

izango gara kontzertu berezi bat eskaintzeko, azaroan berriz, Asturiasen beste txapelketa baten parte hartuko dugu. Gainera, Bartzelonan kantatzeko gonbidapen bat jaso dugu eta datorren urteko otsailan, Alacanten, Ejean irabazitako txapelketa irabazteagatik Gran Premio Nazional izeneko egitura baten parte hartuko dugu. Hau finalen finala izango litzateke, hau da, Estatu osoan egiten diren txapelketa guztien irabazleek parte hartzen duten final nagusia. ○

Ezgaituentzako etxeak

Leioako Udalak hiru etxebizitza utziko ditu Uribe Kosta eta AVIFES elkartearen esku



Leioako Aldapabarrena kalea

Ezgaitu intelektualen bizi kalitatea hobetzeko asmoagaz, Leioako Udalak Aldapabarrena kalean dauden hiru etxebizitza utziko ditu. Hau dela eta, Udalak akordioa sinatu du AVIFES (Gaixotasun Mentala duten pertsonen Senitartekoen Elkarte Bizkaitarra) eta Uribe Kosta elkarteakaz.

Etxeetako bi Uribe Kosta elkartearen esku geratuko dira eta horrela, ezgaitu intelektualak familiaren etxetik kanpo bizi ahal izatea ahalbideratuko dute, baita pertsona hauek independentziaz gozatzeko aukera ere; bide batez, pertsona hauen ongizate fisiko eta psikikoa bermatuko da.

Aipatutako etxeek 75 metro koadro dute gutxi gora behera, berezko garajea

eta ganbagaz batera. Atonketa lanak Uribe Kosta Elkarteak berak egingo ditu eta zortzi edo bederatzita ezgaitu intelektual bizitzeko balioko du. Aipatzekoa da gainera, etxebizitza bi hauek bost monitorek kontrolatuta izango dituztela uneoro.

Hirugarren etxea barriz, AVIFES elkartearen esku geldituko da eta gaixotasun mentala duten pertsonen autonomia lantzeko ariketak egiteko bideratuta egongo da: atentzio ariketak, laguntza psiko-soziala, aisialdi garapena eta komunitatean gizarteratzeko partehartze aktiboa bultzatuko da.

Etxe honek aurreko biak bezala 75 metro koadro ditu, eta lau lagunentzako izango da. ○

LAMIAKOKO MASKARADAGAZ BATERA JAIK ERE BAI

Urtero legez, Lamiakoko Maskaradak kolorez mozorrotuko ditu herriko bazter guztiak. Maiatzeko azken barikuan, hilak 29, ospatuko den egun hau hiru ataletan banatzen da: alde batetik, 17:30etik aurrera, Maiatza, erraldoiak, fanfarrea eta herriko dantza taldea kalejiran abiatuko dira Gaztelubide kaleko biribilgunetik Lamiakoko metro geltokiraino. Horrela, maskarada eta Maiatzaren etorrera herrian zehar iragarri egiten dute parte hartzaileek. Bigarren zatian barriz, 18:00etan, Mari eta Sugaar, bere senarra, agertuko dira Lamiaren eskulturaren ondoan eta Udagorri dantzatuko dute. Amaitzeko, hirugarren zatia gaueko 22:30ean izango da eta suaren inguruan dantzatuko dute batutako pertsonaia guztiek. Akelarrean jentil mitologiaren eta kristautasunaren arteko borroka islatzen duen antzezpena egingo dute. Aipatzekoa da, maiatzaren 29an Lamiakoko jaiak ere emango dietela hasiera eta domekara arte iraungo dutela.

GERO ETA JENDE GEHIAGO ERA ZIBILEAN EZKONTZEN DA LEIOAN

Leioako Udalak, dagoeneko, 59 ezkontza programatu ditu urte honetan ospatzeko. Kopuru honek 2007koa berdintzen du. Duela urte bi 50 ezkontza ospatu ziren Artazan eta beste 9 udaletxean; joan den urtean barriz, 62 ospatzera heldu ziren; aurreko hamabi egin dira eta beste 47 egiteko daude. Joan den otsailaren hasieran ireki zen izena emateko epea eta ordutik hona, aipatu bezala, 2007an ospatutako kopuru bera programatu da. Honez, gero eta bikote gehiagok ezkontzeko era zibila aukeratzeko dutela erakusten da; bestetik, aipatzekoa da 30 eta 35 urte bitarteko pertsonen erabakitzen dutela ezkontzea. Udalak aipatu du herrian ezkondu gura duen orok Leioan erroldatuta egon behar duela sei hilabete lehenago.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), askaria.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94 464 23 64 / 94 464 33 07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Jose Perez Espinosa > Bilbao Basketeko Erandioko zale taldeko burua

“Zale talde hau saskibaloia bultzatzeko asmoagaz, eta horren inguruko ekimenak egiteko jaio da”

Duela egun batzuk Erandioko saskibaloia jarraitzaileek Jose Perez Espinosa buru zela lurbentia Bilbao Basketeko zale taldea aurkeztu zuten herrian. Dagoeneko 50 kidek osatzen du taldea.

—Nola bururatu zitzaizuen Bilbao Basketeko zale taldea sortzea?

—25 urte daramatzat La Casillara partidak ikustera joaten, eta konturatu ginen lurbentia etapa barri honek, zaleen artean ilusio handia eragin duela; beraz, talde hau sortzea bururatu zitzaigun ekipoagaz ilusio hau konpartitzeko, baita laguntzeko ere.

—Zer behar da taldearen kide izateko?

—Alde batetik, saskibaloia gustuko izatea; bestetik, gauzak egiteko gogoia izatea eta oro har, zale izatea eta talde honen bidez kirol hau bultzatu gura dugula ulertzea, ez baikara futbolerako soilik bizi. Ni Athletic-ekoa naiz adibidez, baina ez dauka zerikusirik eta gainera, kirol gehiago daude hor.

—Zein da zuen helburua?

—Alde batetik, umeek futbola ez den beste kirol batzuen ezagupenak izatea. Guk gauzak egitea bilatzen dugu eta ez, ordea, izena ematen dion taldea izatea, eta hortik aurrera ezer ez egitea. Taldea saskibaloia bultzatzeko eta horren inguruko ekimenak egiteko jaio da.



lurbentia Bilbao Basketeko Erandioko zale taldea

—Zure ustez Erandion zaletasuna dago?

—Bai, asko gainera. Pasadizo bat aipatzearen, aurkezpen egunean saskibaloia pilotak ekarri zituzten ume asko zegoen, eta lurbentia jokarietako batek horietako gaztetxo bati saskibaloia egiten duten fabrika bat zeukaten galdetu zion. Honek umeek etxean baloia dituztela, gustuko dutelako, praktikatzeko dutelako edo behintzat existitzen dela dakitelako esan gura dut.

—Heldu barria den Ronnie Seibutisek babestu du taldea. Zer suposatu du?

—Beti da polita jokarietako batek babes-tea, kasu honetan berdin zitzaigun bata edo bestea izan, guk ez dugu inor gutxietsi gura; dena den, Seibutis aukeratu genuen zelaian ematen duena ikusi dugulako eta atsegina eta jatorra iruditzen zaigulako. Gainera saria eman genionean, itzela izan zen: berbarako, ni hiru bider besarkatu ninduen eskerrak emateko eta une horretan erakutsi zuen poza ikaragarria izan zen. Lituania eta herrialde horietan, normalean, ez dago honelako zaletasunik. ○

Autobusak nekazal auzoetan

Zerbitzu hauek Goiherri eta Asua auzoak Altzaga eta Astrabuduko erdiguneakaz lotuko dituzte



Autobus zerbitzu berriak Erandioko nekazal auzoetara helduko dira

Maiatza akabutik aurrera, Erandioko nekazal auzoek autobus zerbitzu barri bi izango dituzte. Autobus-linea honek Goiherri eta Asua auzoak Altzaga eta Astrabuduko erdiguneakaz lotuko ditu. Ekimen hau aspaldian herritarrek egindako proposamenaren eskarriari erantzuteko asmoz eroan da aurrera. Nekazal auzo hauetako biztanleek edozein enkargu egin behar dutenean, bai erosketak, bai medikuarenera joan, beti kotxea hartu behar izaten baitute. Horrela, geltokiak osasun zentro, udal bulego edo gune komertzialetatik gertu kokatuta egongo dira.

Maiztasunari dagokionez, orduoro irten-go da, 20 eta 25 minutuko iraupena izango du. Bidaia osoaren prezioa 1.10 eurokoa izan-

go da, eta Goikoa auzotik aurrera bidaiatzen bada, (ibididearen erditik aurrera) aldiz, 0,45 zentimo balioko du.

Gizatrans txartela erabiltzen duten jubilatuek 0,30 zentimo baino ez dute ordainduko ibilbide guztian. Tarifak udaleko osoko bilkuran onartu dira.

Autobusen ordutegia asteleheneetik bari-kura, goizeko 07:00etatik gaueko 23:00etara izango da; zapatuetan ordea, goizeko 07:00etatik 15:00etara, domeketan eta jai egunetan ez da zerbitzurik egongo. Hala ere, zerbitzuaren handitzea aztertuko dutela aipatu dute Udaletik. Unitate bik osatuta egongo den autobus aldrak 30 pertsona baino gehiago hartuko ditu. ○

KANPINGAGS ANTZERKI TALDEAREN “ILUNPETAN” ANTZEZLANA ERANDION

Kanpingags-eko kideak Lander Iglesiasen zuzendaritzapean Erandioko oholtza gainera igoko dira Peter Shafferren testuan oinarritutako “Ilunpetan” obra aurkezteko. Lan honen elementurik garrantzitsuenak iluntasunaren eta argiaren arteko jokoak dela esan daiteke. Altzagako Azoka Zaharrean izango da euskarazko bertsio hau maiatzaren 28an, 20:00etan. Tramari dagokionez, Brindsley eta Carol dira bikote protagonista, ezkontzera doazanak. Arte-bildumagile baten bisita izango dutenez, beren bizilagunaren altzairuak hartu dituzte etxea txukunago gera dadin. Argia joaten denean hasten da nahasketa. Bizilaguna agertzen da, eta bikotea saiatzen da iluntasunaz baliatzen altzairuak itzultzeko. Baina egoera guztiz nahasteko, Brindsleyren neska ohia agertzen da, berak benetan maite izan duen neska. Komedia prest dago, horrenbestez, hamaika eszena barregarri ikusi ahal izateko.

TXAKUR GOROTZEN ORDEZ LOREAK LANDATUKO DITUZTE

Udaleko garbiketa zerbitzuko langileek berdegune eta txakur gorotzak dauden lekuetan lore artifiziala landatuko dute. Ekimena Erandioko herritarrek beren txakur kakak bil ditzaten kontzientziatzeko izango da “Ez zenuke lorea nahigo? Erandio gero eta garbiago!” lelopean. Udalaren esanetan, herria gorotzik barik zein polita egongo zatekeen erakutsi gura du ekimenagaz. Landatuko diren loreek burdinazko zurtoina daukate, petaloak laranja eta leloa idatzita daramate erdialdean. Beste alde batetik, 9.000 liburuxka bidaliko dituzte etxetara ekimenaren helburuak azalduz eta 500 ontzi banatuko dira. Azken hauek herrian dauden 2.216 txakurren jabeentzat izango dira, udal bulegoetan banatuko dira. Duela sei hilabete hasitako kanpainaren beste urrats bat da hau.

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Inausketak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

Tf. 94 467 17 13
FAX 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Sakelakoa
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

EKAINAREN 1ETIK AURRERA TAO HONDARTZAN

Datorren ekainaren 1etik aurrera eta eguraldia onagaz batera, Sopelako hondartzetara hurreratu gura duen orok aparkatzeagatik egunero ordaindu behar izango du. Herriko biztanleek hilabete osoa eman dute TAOren sistemaren kontra protestaka, baina Udalak, barriro ere, hondartzetara aparkatzeagatik ordaintzeko erabakia hartu du. 2007ko azaroaren 29an Udalak TAO hirigunetik kentzea erabaki zuen Barinatxe, Arrietara eta Atxabiribil hondartzetara mugatuz. Gauzak horrela, datorren irailaren 30era arte iraungo du aparkatzeko ordaintzeko hondartzetara, eta egun guztietan 10:00etatik 20:00etara izango da. Salneurriari dagokionez ordea, ordu erdiz aparkatzeko 30 zentimo ordaindu beharko da. Gehienez ere bost euro ordaindu ahal izango da aparkatzeagatik eta diru kantitate horregaz egun osorako utzi ahal izango da autoa aparkalekuan. Joan den urtean beste. Hala ere, Sopelan, trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga ordaintzen duten biztanleek bereizgarri izango dute eskuragarri. Bereizgarri hori ibilgailuan ikusteko moduan jarri gero, hondartzetako aparkalekuetan doan aparkatzeko aukera izango dute.

JAUREGIZAR SOINU ALAI MUSIKA ETXEAN IZEN- EMATEA ZABALIK

Sopelako Jauregizar Soinu Alai Musika Etxeko udal musika tailerretarako aurre matrikula epea hil honetan zabalduko dute ikasle barrirentzat. Bertan parte hartzeko interesa duenak aldeztu aurretik, matrikula egin beharko dute ondoko egunetan: maiatzaren 21, 22, 28 eta 29an, Musika Etxean, Enrike Urrutikoetxea, 10-12 (udal euskaltegiaren ondoan). Ordutegia goizeko 10:00etatik eguerdiko 12:00etara eta arrastiko 18:00etatik 20:00etara da.

Atxabiribil gertuago

Sopelak hondartzara bideko distantziak laburtuko ditu herriko erdigunerako hurbilketari esker



Sopelako Atxabiribil hondartzarako lanak

Sopelak Atxabiribilera bideko distantziak laburtuko ditu herriko erdigunerako hurbilketa barriari esker. Kostara doan bideko obrak erabakitako epearen barruan amaituko dira. Loroño kaleko oinezkoentzako ibilbidearen lanetan aurreikusitakoaren arabera. Lanak aldi berean, aurrera egiten dute Uribe Kostako eskualdea lotzen duen Loiola Ander Deuna errepidearen beste aldetik. Honeguz, hondartzatik sortzen den trafikoa arazoa konpontzea lortu gura dute. Apirilean hasitako Loroñoko oinbidetaren lanek erdigunea kanpinaren ingu-

ruagaz lotuko ditu. Horrela, udalak amaitu bako zatiagaz hasiko da kaleko espaloia osatzeko.

Udal partzela edo jabetza pribatuek osatutako lur titulartasunak tramite administratiboak bardindu ditu. Makinak zuhaixkaz osatutako landare ezpondak kentzeko asmoagaz sartu dira, hau baita erdigunera sartzeko azken oztopoa; izan ere, jendea galtzadaren bazterretik ibiltzen da eta horrek istripu bat baino gehiago eragin ditu. Beraz, bost metroko zabalera duen espaloigaz arazoa konponduko litzateke. ○

Javier Martinez Garaialde > margolaria

“Duela 30 urte, hasi nintzen lehen kartel lehiaketetan lanak aurkezten”



Javier Martinez Garaialde

Sopeloztarrak Barrikako jaietako kartel lehiaketa irabazi du “Trikitixa” lanagaz. Martinezek 30 urte daramatza margotzen eta oraingoa bezalako lehiaketetan esperientzia handia dauka; sarritan hartzen du parte eta dagoeneko 20 sari inguru jaso ditu. Kartelean, trikitilari bikotea irudikatu du. Elementu bisualak argi ikus daitezten ahalegintzen da Martinez.

—**Deskriba iezaguzu zure lana.**

—Serigrafia tailerra daukat eta marrazkilaria naiz. Kartel lehiaketetara zaletasunagatik aurkezten ditut lanak, beti gustatu izan zait eta marrazkiakaz zerikusia dauka.

—**Zein lehiaketetara aurkezten zara?**

—Pentsan iragartzen diren kartel lehiaketetara gehien bat. Baina batzuetara baino ez naiz aurkezten. Normalean zeintzuk egingo ditudan aukeratzeko ditut, eta berdin dio jaietarakoak izan edo beste edozerenak.

—**Noiz hasi zinen mundu honetan?**

—Duela 30 urte, kartel lehiaketak hasi zirenean; garai hura baino lehenago, artistaren bati egiteko eskatzen zitzaion. Bilboko jaiet-

tarako kartelak izan ziren lehenak 1979an eta lau alditan bigarren geratu nintzen, Audio edo Portugaleten egiten ziren lehiaketetara ere aurkeztu izan naiz.

—**Normalean, zeintzuk izaten dira zure inspirazio iturriak?**

—Burua eta normalean, euskal tradizioagaz eta herriagaz zerikusia daukaten elementuak.

—**Nola egiten dituzu kartelak?**

—Normalean, euskarri gogorrean egiteko eskatzen digute, kartoian. Bestetik, ordena-

«Burua eta euskal tradizioko elementuak dira nire inspirazio iturri»

doreen kontua ez dudanez oso gustuko eskuz egiten ditut. Margoei dagokionez, beti erabili izan dut gouache-a eta aspaldi honetan serigrafiko margoakaz ere egiten ari naiz distira handia daukatelako, eta bizitasuna ematen dietelako marrazkiei. Motiboa edo gaia kartoian margotzen dut eta gero pintzela erabiltzen dut. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK
Taberna**

Bentatu 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Gotzon Mantuliz > "El conquistador del fin del mundo" telebista saioko irabazlea.

"Esperientzia ahaztezina izan da; txarto pasatu dut, baina ikasi ere asko ikasi dut"

Asko izan dira "El conquistador del fin del mundo" telebista saioa astero-astero ikusi dutenak. Gotzon Mantuliz berangoztarra izan zen ETBko bigarren katean astelehenero ematen zuten saioko irabazlea. Gazteak zer nolako esperientzia bizi izan duen kontatu digu eta errepikatuko lukeela ere aitortu du.

—Zerk bultzatu zintuen saio honetan parte hartzea?

—Beti gustatu izan zaidan programa da, baina inoiz ez nuen partehartzea pentsatu. Egun batean, lagun batez txantxetan nengoela honi buruz berba egin genuen, eta azkenean saiora idatzi eta casting-era joan nintzen.

—Zelako esperientzia izan da?

—Esperientzia ahaztezina iruditzen zitzaidan. Txarto pasatu dut, baina ikasi ere asko ikasi dut. Gainera, ezagutzen ez dugun jendeagaz elkarbizitzeko aukera ematen du. Oro har esperientzia oso ona. Duda barik, errepikatuko nuke.

—Zer da "El conquistador del fin del mundo" saiotik gehien eta gutxien gustatu zaizuna?

—Norbere gorputzak proban jartzea. Bakarrik eta ezer barik hara joan, ikusi ditugun lekuak harrigarriak izan dira eta beste



Gotzon Mantuliz

alde batetik, probak, programak eskatuta ez balitz, nire kabuz egingo ez nituzkeen probak direlako. Gutxien gustatu zaidana, aldiz, denbora luzea ematen genuela ezer egin barik eta oso baldintza txarretan, gose eta hotz handiagaz. Oso luzea eta oso astu-na egiten da. Bestela dena oso ondo.

—Zelan beste lehiakideakaz?

—Saioan eztabaidaren bat izan nuen, baina dena dago konponduta. Batzuek ez daukat tratu handirik, baina gehienok oso ondo moldatzen gara. Joan den zapa-

tuan, adibidez, saioko lagunak jai sorpresa egin zidaten Berangoko The Imagen eta ia denak etorri ziren, oso ondo pasa genuen. Askotan elkartzen gara.

—Telebistan azaltzen den bezain gogorra izan da?

—Bai, azaltzen dena baino gehiago, agian. Kontuan hartu behar da telebistan agertzen dena oso gutxi dela, hotza eta gosea ezin direla islatu; gainera, esan dudana bezala, denbora luzea ematen genuen ezer egin barik. ○

Yonunca antzerki taldea > "Reptiles sonrientes"

"Gure helburua antzerkia edonori gusta dakiokela erakustea da"



Yonunca antzerki taldeko lagunak

Talde gaztea bada ere, esperientzia eta gogorik ez zaio falta. Getxoko Antzerki Eskolako ikasle eta irakasle ohiek talde batek sortu zuten 2007an, Yonunca antzerki taldea. Umorea, ironia eta kritika soziala dira nagusi euren lanetan. Maiatzaren 29an, "Reptiles sonrientes" azken lana taularatuko dute Plentziako Goñi Portal Kultur Etxean, 19:00etan.

—Nola hasi zen Yonunca?

—Orain dela urte bi, Algortako Gazte-arearen urteurrenerako zerbait prestatzeko proposatu ziguten. Albertiren, Brechen eta askatasunaren gaia lantzen zituzten testu batzuetatik abiatuta, "Voces pisadas" lana sortu genuen. Horren ostean, kale antzerki pieza bat prestatu genuen, eta azkenik, azken lan honez hasi ginen, "Reptiles sonrientes". Gaur egun, zazpi lagun gaude taldean.

—Zergatik Yonunca izena?

—Antzerkiarekiko aurreiritzi ugari dago

gizartean. Jendeak esaten du ez doala antzerkia ikustera ez duelako gustuko. Baina, arazoa da, ez dakitela antzerkia zer den; ez dago antzerki kulturarik. Horregatik, Yonunca izena. Gure helburua, antzerkia edonori gusta dakiokela erakustea da.

—Zertan datza azken lan hau?

—Komedia da, gizarteari egindako kritika zorrotza. Sketch ezberdinek osatuta dago.

«Egunerokoa zentzubakoa izan daitekeela erakutsi gura dugu»

Eguneroko bizitza zein zentzubakoa izan daitekeen erakutsi gura dugu, zenbat traba jartzen dizkiogun gure buruari zoriotsuak ez izateko. Igogailuko elkarrizketak, gorroto ditugun opariak jaso eta irribarre egin behar dugun urtebetetzeak, zentzu bako zurrumurruak... Trabak jartzen dizkiogu geure buruari aske ez izateko. ○

Harremanetarako:
yonunca@hotmail.com



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Teléfono: 646 701 120

Ajuria
taberna

Andres Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri 4, Tf. 94 460 30 03
ALGORTA



AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



URDULIZKO TOPONIMIA BATZEKO BEKA

Urdulizko Udalak herriko toponimia batzeko beka lortzeko deialdia zabaldu du. Azterketa 12 hilabetetan egin beharko da eta 18.000 euro emango zaizkio beka eskuratzen duenari. Euskaltzaindiako Onomastika Sailaren laguntza izango du. Euskal Filologian edo Historian lizentziatutako, zein azken mailan dagoen edozein banakok edo taldek eska dezake beka. Urdulizko Udaleko Errola Orokorrean aurkeztu behar da dokumentazioa hilaren 29a baino lehen.

SKATE ERAKUSKETA PLENTZIAN

Maiatzaren 30ean skate erakusketa egingo dute Plentziako futbito zelaian (Udaletxearen atzealdean) BBK Skate Eskolako lagunek. Goizeko 11:30ean hasiko da; hasteko, skate ikastaroan parte hartzeko aukera egongo da. Ondoren tokiko skate lehiaketa egingo dute, eta amaizeko, patinatzaile profesionalen erakustaldia.

LEONERA TXANGOIA EKAINEAN GORLIZKO KULTUR ETXEAGAZ

Gorlizko Kultur Etxeak, Leoneko mendiak ezagutzeko txangoa antolatu du ekainaren 19,20 eta 21erako. Izena eman gura duenak, Gorlizko Turismo Bulegora (Iberrebarri 4) hurreratu edo deitu (tf. 94 677 43 48) beharko du. Prezioa 165 euro da gela bikoitza hartuz gero, eta 220 euro banako gelan. Autobusa, gosariak, trena, aseguru eta hotelak daude prezioaren barnean.

MANKOMUNITATEA

Kotxea partekatzeo aukera maiatzetik aurrera



Kotxeek sortutako kutsadura gutxitu gura dute ekimen honegagaz

Errepidean goazela, inguruko kotxei begira jarriz gero, gehienetan pertsona bakarra doala ikusi ahal izango dugu. Horrek, gidariarentzako kostu handia suposatzeaz gain, kutsaduraren biderkatzea eta kotxe ilarrak sortzea ekartzen du. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak, kotxea partekatzeo ekimen barria jarri du abian. Eskualdeko herritarrei garraiorako alternatibak eskaintzea, kutsadura gutxitzea eta eremu publikoen erabilera hobetzea dira ekimen honen helburu nagusiak.

Kotxea partekatzeo zerbitzua, doakoa izango da eta edonork erabili ahal izango du www.uribekosta.org web gunearen bitartez. Bertan, beharrera, unibertsitatera edo bidaian joateko aukeren artean hautatu eta zure ibilbide bera egiten duten erabiltzaileak ikusi ahal izango dituzu. Horiekaz kotxea partekatu gura izanez gero, mezua utzi ahal izango diozu bere helbide elektronikoan. Honez gain, sistemak, aurkitzen dituen beste kointzidentzien inguruan informatuko du. ○

Maitz. 25 - Ekai. 8

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Arte Aplikatuak, Kultur Etxeak Villamonten antolatutako tailerretako ikasleen eskutik.** Algortako erakusketa aretoan. Maiatzaren 25etik 30era.

PLENTZIA

► **Skate erakusketa, gazteei zuzenduta.** Futbito zelaian (udaletxearen atzealdean). Maiatzak 30, zapatua.
► **Margo erakusketa Edith Kiriakova eta Ana Truebarenen eskutik.** Goñi Portalen. Maiatzaren 15etik 29ra.

BERANGO

► **Kultur Etxeo ikastaroetako lanak ikusgai: Eskulanean ikastaroko lanak eta umeentzako ingeles margolaritzaren kuadroak.** Kultur Etxean. Ekainaren 1etik 7ra.

MUSIKA

URDULIZ

► **Oskorri: The Pub Ibiltariaren emanaldia.** Kultur Etxean. Ekainak 6, zapatua. 20:00etan. Sarrera: 3 euro.

ZINEMA

ERANDIO

► **“Gomorra” filma.** Josu Murueta Kultur Etxean. Maiatzak 30, zapatua. 21:00etan. Sarrera: 2 euro.

GETXO

► **XXVII. Eskola Antzerki Jardunaldiak.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Maiatzak 30 eta 31. 11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era.



Marcel-II Altunetz-en obretako bat Leioako erakusketa aretoan

► Erakusketa

“Requiem + Alfabeto + DMD Europa”

Afektua, identitatea, eskatologia edo heriotza dira Marcel-II Altunetz Rocak jorritzen dituen gaiak bere erakusketan. Leioako erakusketa aretoan izango da ikusgai, katalanaren azken obra maiatzaren 21etik ekainaren 28ra arte. Bertan, azken urteotan egin duen laneko obra elkarrengilerik esanguratsuenetako batzuk egongo dira ikusgai. Horien artean adibidez, Requiem robot exoeskeletikoa (robot horri esker, berau janzen duen pertsonaren gorputza kontrola daiteke), Alfabeto (ikuslearen ukimenagaz erreakzionatzen duen protesentik gisa funtzionatzen duen audioinstalazioa) edo DMD Europa Hormako Irudi Dinamikoa (ikusleak kontrola dezakeen instalazioa).

• **Non:** Leioako Erakusketa Aretan • **Noiz:** Maiatzaren 21etik aurrera.

LEIOA

► **Perseo cineforum.** “La familia Savagers”. Auditorium-en. Maiatzak 26, martitzena. 20:00etan.

ANTZERKIA

BERANGO

► **Kultur Etxeo antzerki ikastaroko ikasleek landutako antzerki lana.** Berangoetako Kultur Etxean. Ekainak 1, astelehena. 18:30ean.

► **GETXO ► A pesar de ellos antzezkiuna “Emakumeak eszenan” zirkuituaren barruan.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Ekainak 7, domeka. 19:00etan. 3 euro.

ERANDIO

► **Mimo-Antzerkia Peter Roberts-en eskutik.** Tartanga Institutuan. Maiatzak 28, eguna. 17:30ean.

PLENTZIA

► **“Narrasti irribarretsua”** Yonunka antzerki taldearen eskutik. Goñi Portalen. Maiatzak 29, barikua.

BESTEAK

BERANGO

► **Internetetik postalak bidaltzeko ikastaroa.** Haur liburutegian. Maiatzak 25, astelehena.
► **Ur arkatzen dekorazio tailerra.** Kultur Etxean. Ekainak 5, barikua.
► **Eskolaz kanpoko jardueren emanaldia. Txistu, Dantza Modernoa eta Karatea.** Berangoko eskolan. Maiatzak 29, barikua. 16:30ean.

GORLIZ

► **Gazte Aktiboa: kanoa zeharkaldia Puente Pintotik.** Iberrebarri aterpetxean. Maiatzak 30, zapatua. 12:00etatik 14:00etara eta 20:00 etatik 22:30era.
► **Lorategi lehiaketan parte hartzeko epea zabalik.** Kultur Etxean. Ekainaren 2tik 12ra. 9:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

ERANDIO

► **Elikagai manipulatuak ikastaroa.** Maiatzaren 26 eta 27an. Informazioa: Erandio Gazte Informazio Bulegoan, 94 602 58 91 telefonoan.

GETXO

► **Getxoko XXVI Eskulangintza eta gastronomia azoka.** Areetako Geltokia Plazan eta Ibaiondo kalean. Ekainaren 5etik 7ra.
► **Uribe Kostako ipuin laburren II. lehiaketaren sari banaketa.** Algortako Aldai patronatuan. Maiatzak 29, barikua. 19:00etan.

LEIOA

► **Lamiakoko maskarada eta jaien hasiera.** Maiatzak 29, barikua.

URDULIZ

► **Euskaraz Olgetan.** Kultur Etxean. Maiatzak 26, martitzena. 17:30etik 19:30era.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tf. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



[albuma]



Bizkaiko herri zuri-gorri

Ez ginen besteak baino gutxiago izango, ezta gutxiago ere! Bizkaia osoa lehoien modura orro egin zuen egunean, Uribe Kostako herriak ere zuri gorritz tintatu ziren. Orriotako argazkiak, Getxon hartuak dira. Dendak, balkoiak, kaleak, plazak eta aurpegiak, Athletic animatzeko apaindu zituzten zaleek. Ehundaka pertsona batu ziren Geltokia Plazan. Zoritxarrez, zaleen oihuek ez dituzte golak sartzen.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Erromoko

futbol zelaia

Athletic-ek zuri-gorritz jantzi ditu hainbat leiho, etxe, denda, taberna eta bazter publiko; izugarria izan da Bilboko futbol taldeak kopako finala jokatzek eragin duen zalaparta zaleengan. Honen harira, Erromoko futbol zelai ohia dakarkizugu gogora. Nork esango zuen, nahiz eta garai bateko langileen etxeak batere aldatu ez diren, horrelako futbol zelaia topatuko genuenik? Kosta ere egiten zaigu bertan kokatzea, eta pentsatzea zelai horren ordeaz orain eliza dagoela.

[berbetan]

Musikagilea eta kazetaria dugu Roberto Moso santurtziarra, aspaldi bizi da Sopelan eta Zarama taldeagaz egin zen ezagun 1977 urtean. Taldeak 1995ean bere jaioterrian ospatu zen Ibilaldian agur esan zigun, joan den otsailean itzulera iragarri zuen arte. Taldeak utzitako errepertorioan “Txatxo” edo “Iñaki, ze urrun dago Kamerun” bezalako abesti mitikoak arkituko ditugu, guztira zazpi disko kaleratu zituzten. Hala ere, Moso ez da musikagatik bakarrik ezagun. Hogei urte zituenetik Radio Euskadin ibili da kazetari hainbat saiotan *Radiotxok*, *La Noche de la Igwana* edo *Ahinko a 45* dira horietako batzuk.

Roberto Moso

“Musika egitea errazagoa da orain”

Testua: **Ainhoa Lores** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

— Nola sortu zen Zarama taldea?

— Santurtziko lagun talde bat ginen eta oso musikazaleak gainera, domeketan asko aspertzen ginen, udan batez ere; beraz, abuztuko egun batean Santurtziko garagardotegi batean geundela, talde bat sortzeko ideiaz fantaseatzen hasi ginen. Askotan gertatzen den gauza da honelako gauza batez fantaseatzearena, gure kasuan, gainera, aurrera jarraitu zuen, fede handia geneukalako egiten genuenagaz, besteak beste. Konfiantza handia geneukan nahiz eta musika egiten hasi ginenean ez genekien zegaz egingo genuen topo, edo zein izango zen gure etorkizuna. —Nondik etorri da zuen musikaren definizioa eta estiloa? Beste taldeen eraginik izan duzue?

—Gure gustuko diren talde guztien nahasketa da nolabait, hortik egongo dira Doctor Feelgood, David Bowie, AC/DC, Lou Reed, Rolling Stones eta beste artista askoren mamuak oro har.

—Itzulera, zer dela eta?

—Egia esan, ez genuen espero; Alde bate-

rik esan behar dut, gure harremanak jarraitu duela taldea banandu ostean. Afariak egiteko geratu izan gara, domeka batzuetan, familiagaz elkarregaz bazkaltzeko, eta bazkal ostean umeakaz abestiak egiteko ere egon izan gara.

Bestetik, aipatu beharra dago Getxotik deitu zigutela Hertzainak tadekoakaz batera jotzeko. Jaialdi historikoa egiteko asmoagaz deitu zigutela suposatzen zen, baina azkenean, bertan behera geratu zen. Hala ere, gurean, bazegoen egiteko nolabaiteko tentazioa eta horregatik gauzatu genuen.

“Entsegu konkretu batean denak elkar besarkatzen amaitu genuela gogoratzen dut. Oso polita izan zen”

Ekitaldi pare bat baino ez egitea erabaki genuen eta horretan geundenean, Lastour Internazionalekoek deitu, eta ea zer edo zer serioagoa egin gura genuen proposatu ziguten. Guk ez genuen horren enpresa garrantzitsutik etortzea espero, baina orain

bagaude *Zarama Berziklatuaren Biran* eta oso pozik, egia esan.

— Noiztik zabiltzate taldeko entseguak egiten?

— Gabonetan egin genuen lehenengo entsegua. Normalean, gauean izaten dira, denok familia daukagulako eta gainera, oso lanpetuta gaude egunean zehar, horregatik gauetan egitea erabaki genuen. Atzo bertan ere, entseetzen aritu ginen eta ondo.

—Non entseetzen duzue?

—Errekaldeko egoitza batzuetan entseetzen dugu, leku oso aproposa da.

—Zelakoa izan zen lehenengo entsegua?

—Hasieran, nahiko baldar, abesti batzuetan ez horrenbeste, besteak baino errazagoak direlako jotzen, baina beste batzuetan... Ai ene! Jotzen ahaztu zaigu! Zer da hau! Ez zitzaigun oso ondo atera. Hala ere,



denboragaz konpontzen hasi ginen eta entsegu jakin batean gainera, denak elkarregaz besarkatzen amaitu genuela gogoratzen dut, aurkikuntza handia izango balitz bezala. Oso polita izan zen.

— **Pentsatuta daukazue etorkizunean diskoren bat grabatzea?**

—Momentuz bira biribiltzeagaz nahiko daukagu, gero gerokoak. Baina egia esan, dene-tatik pasatu zaigu burutik, zuzeneko egitea, abesti barriren bat edo *unplugged* bat kalera-tzea, baina orain, nahiko lan daukagu abesti-ak biribiltzen, antzinako abestiak berregiten eta zuzeneko indartsuak eskaintzen.

—**Publikoak zer topatuko du zuen kontzertuetan?**

—Dagoeneko kontzertu bi egin ditugu. Agian ni ez naiz aproposena horretaz berba egiteko, baina esango dizut iritzi oso onak jaso ditugula; jendea oso pozik agertu da, eta prentsan ere kritika nahiko ona jaso dugu.

Gure helburua orain inoiz baino hobeto agertzea da, gure garaian baino hobeto. Nahiz eta zaharragoak izan, denboragaz zer edo zer ikasi dugu, ikasi dugun hori erakutsi gura dugu, bai kalitate aldetik, bai ohol-tza gainean egotearen aldetik, baita lehen mailako taldea izan gura dugulako ere.

—**Dagoeneko Bermeo edo Bilboko Kafe Antzokiko ohol-tza gainean aritu zarete. Aldaketarik igarri duzue aurreko garaia-gaz konparatuz?**

—Bai. Orain beste mota bateko giroa dago, aurreko garaian azken finean, rocka herri txiki-tan entzuten zen, nahiko barria zen, eta euskaraz egindako rock and rolla are eta gehiago. Horri dagokionez nolabaiteko aire freskoa zegoen. Gaur egun barriz, publiko-ak bere gustuak ditu, hamaika kontzertu ikusi ditu, jendearen artean kultura handi-goa dagoela igartzen da. Beste alde batetik, Kontzertuetara etortzen diren gehienek badakite zer ikusiko duten, lehengo aldean ezberdina da publikoaren jarrera.

—**Euskal musikan, zuek izan zineten 80ko hamarkadaren hasieran, punk eta rocka jotzen hasi zineten lehenetakoak. Talde barritzailea. Orain barriz, panorama**

guztiz desberdina da, zelan ikusten duzue zuzen burua egun?

—Orain mota desberdinetako taldeak, mota desberdinetako musikak egiten ikusten ditugu nonahi. Udal batzuetatik ere musika egiten laguntzen dela igartzen da, lehen ordea, bazirudien rocka eta gauza txar-rak, denak elkarregaz zihoazela. Gaur

“Iritzi oso onak jaso ditugu, jendea oso pozik agertzen da eta prentsan ere kritika nahiko ona jaso dugu”

egun, nola edo hala, oro har, esango nuke kultura defendatzen dela, ez kasu guztietan, baina bai askotan; honegaz, aipatu beharra dago, egoitza ugari dagoela alde batetik, gure garaian baino askoz gehiago, eta baldintza hobekoetan jotzeko aukera dagoela. Oro har esango nuke hobera egin dugula.

—**Lehen “Iñaki, ze urrun dago Kamerun” eta orain, zentzu horretan zelan ikusten duzu panorama?**

—Beno, ez bakarrik abesti horregaz, kanta askoz gure hitzak oso eguneratuta daudela esango nuke. “Iñaki, ze urrun dago Kamerun”-i dagokionez, hor jarraitzen dute Iñakiek DVD eta dena delakoak saltzen, gure paisaian daude. “Zoaz Euskal Herrira” abestian adibidez, nola Euskal Herria, Euskadi, Pais Vasco edo zer demonstreri buruz berba egiten ari ginen ez genekielan esaten genuen. Gure garaian hori zen ezta-

“Gaur egun, gure garaian baino baldintza hobekoetan jotzeko aukera dagoela esango nuke”

baida, eta orain ere antzera gabiltza; ikusi baino ez dago, Antonio Basagoitik Euskal Herria ez dela dio, edo Euskal Selektzioagaz izandako tirabira... azkenean badirudi orain dela hile bi egindako abestiak direla.

Hala ere, badaude “Gasteizko gaua” edo “Bihotzak sutan” bezalako beste kanta batzuk, antzinako kontuei buruz berba egiten

dutenak, baina “Iñaki, ze urrun dago Kamerun” eta hauek iraganeko egun konkretuei buruz berba egiten dutenak dira, horregatik ez dute lar galdu.

—**Gogoratzen duzun zuzenekoaren bat?**

— *Loreak Zarama* liburuan adibidez, Eibarren gertatutako aparteko ekitaldia aipatzen nuen. Gauza askorengatik, iskan-

bila betean amaitu baitzen. Gure agurraren ekitaldia ere oso berezia izan zen Santurtziko Ibilaldian, 1995ean egin genuen. Beste bat aipatzekotan, Anoetako belodromoan egindakoa esango nuke, bertan ikusita bainezkan Ramones, The Clash, Santana eta gustuko ditudan makinatxo bat talde.

—**Itzultzeko erabakia zeuek bakarrik hartu duzue?**

—Bai, beno kanpotik ere agian xaxatu gaitzutela esan daiteke, nolabait. Aspaldi, ekitaldi bat egitea eskaini ziguten, horrek gu ikusteko nolabaiteko eskaera zegoela pentsarazi zigun.

—**Joan den otsailean itzulera iragarri zenu-ten, baina mugatua da?**

—Printzipioz bai, urtebeteko bira egitea da gure ideia, gero gerokoak.

—**Egun, badirudi aspaldiko makina bat**

talde itzultzen ari dela maila internazio-nalean ere, horren inguruko kritikak entzun izan dira. Zer iritzi duzu?

—Mota desberdinetako gauzak ikusten ari dira. Adibidez, ezin da konparatu The Dors ikustea Jim Morrison barik, hori nire uste-an ez da onargarria, Eskorbutoaren kontzertu batera Juanma eta Josu barik joatea

bezala izango litzateke. Baina, erabakia talde bakoitzarena da; ez zait batere erakargarri egiten horrelako emanaldi batera entzule joatea.

Beste talde batzuen kasuan, kontua guztiz desberdina da. Sex Pistols edo The Police taldeen zuzeneko kontzertuan egon nintzen, eta honelako taldeak ikusi ahal izatea ikaragarri barri ona izan zen. Ederto batean pasa nuen.

—**Teknologia barriak direla eta, pirateria da nagusi musika munduan, zer iritzi duzu kontu honi buruz? 80ko hamarkadan ez zegoen honelakorik. Lehen, zintak grabatzeagaz konformatzen ginen.**

—Garai hartan, diskoetan lelo batzuk agertzen ziren “*Home taping is killing the music*” esaten zutenak eta gaur egun zintak altxor txikiak dira.

Egun gertatzen dena aldiz, askoz

larriagoa da, orain diskoa desagertzeko zorian baitago. Hala ere, nik ez dut uste pirateria debekatzea, isunak jartzea, jendea espetxeratzea, hortik esaten den bezala irtenbidea denik. Akordio batera heldu beharra dago; musika legalki internetetik deskargatzeko batetik, eta bestetik, industria diskografikoa babesteko nolabait.

“Ez dut uste pirateria debekatzea edo isunak jartzea irtenbidea denik, akordio batera heldu beharra dago”

—**Orduan, orain musika egitea, ez da batere erraza...**

—Zentzu horretan ez, musikaz bizitzeko ekitaldi piloa eta ondo ordainduta ez baldin badituzu, ez dago modurik. Gainera, disko salmentak behera egin du, oso

gutxi saltzen da.

—**Kontzertuakaz irabazten denagaz aurrera egin behar...**

—Bai, baina krisiaren arazoagaz, gero eta zuzeneko gutxiago antolatzen dira, nire ustez, momentu nahiko delikatu-gaude.

—**Noizbait desagertuko da musika?**

—Hori ez. Musika ez da inoiz desagertu-

ko. Industria diskografikoaren berziklapena ikusiko dugu, ez dakit zehatz nolakoa izango den, baina ikusiko dugula argi dago. Agian, epe laburrean musika entzuteko bide bakarra internet edo MP3 bezalako euskarriak izango dira. ○



NOVIAS TURQUESA

Emaztegaia - Festa
Novias - Fiesta

Osagarriak
Complementos

Neurrira egindako diseinu eta konfexzioa
Confección y Diseño a medida


Bidebarrieta 2
Junto a Metro Las Arenas 94 657 69 17
e-mail: noviasturquesa@noviasturquesa.com



Espazioa eta denbora

Eskualdeko argazkilaria gazte baten proposamena dakarkizugu oraingo honetan. Peru Isasi Sarria (Getxo, 1985) Diseinu Grafikoa ikasi zuen Gasteizko Arte Eskolan. Hala ere, ez dira ikasketak izan argazkiak egitera eroan duena. Zaletasunak bultzatu du kamera eskuan hartu eta ikusten eta sentitzen duena harrapatzea. Aspaldi itxitako fabrikak, zentral nuklearraren arrastoak, aldazio zikinak... Gehienentzat, erabilpen gabeko leku hilak direnak, inspirazio iturri izan dira kasu honetan. Irudimenak lagunduta, leku grisena ere, ortzadar bihur dezakegu; are gehiago, gizaki misterioaren laguntzagaz.

Argazkiak: **Peru Isasi Sarria**







I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

ikusezazu.com azkenik
Filmak, telesailak zein dokumentalak
euskaraz ikusteko eta jaisteko aukera



ikusezazu.com
EUSKARA TEKNOLOGIAREKIN BILDUZ

IRARZI Durango
Ydrio
Arkulariak

IKUSEZAZU.COM BILDUMA PROIEKTUA

Zar da ikusezazu.com? Ikusezazu Bilduma Proiektua
Bideo horietan sartzen dira... ikusezazu.com webgunera sartzen eta bideoak ikusteko eta jaisteko aukera.

2004 urtean sortutako, eta hainbat urteko esperientziarekin, ikusezazu.com webgunera sartzen eta bideoak ikusteko eta jaisteko aukera.

2004 urtean sortutako, eta hainbat urteko esperientziarekin, ikusezazu.com webgunera sartzen eta bideoak ikusteko eta jaisteko aukera.

2004 urtean sortutako, eta hainbat urteko esperientziarekin, ikusezazu.com webgunera sartzen eta bideoak ikusteko eta jaisteko aukera.

www.ikusezazu.com

ikusezazu.com, aukera, azkenean! Kultur lanak (direla musika, zinea, programak e.a.) sarearen bitartez doan eskuratzeko aukerak kulturari berari ekar diezaiokiokeen desabantailak edota kalteak gaurkoan alboratuz, eta erabaki etikomorala norbanakoaren baldintzen eta irizpideen mende utziz... Eta hizkuntza "indartsuek" eskaintzen dituzten aukerak hizkuntza "gutxietuek" ere zilegi dituztela aldeztuz... *ikusezazu.com* webgune barriaren sorrerari ongiatorria, behintzat, egiteko asmoa dugu.

Ikusezazu Elkartearen "ice-berg-aren tontorra besterik ez den" webgune barriak euskarazko (itzulitako) filmak, telesailak zein dokumentalak ikusi eta jaisteko aukera eskaintzen du, doan. Elkarteak joan den otsailan ipini zuen martxan ekimena eta dagoeneko 321 bideo inguru daude ikusgai, eta "aurtengo udarako euskarazko itzulitako mila bideo argitaratzeko asmoa" duela azaldu du Ikusezazu Elkartearen egile-asanbladak. Elkarteak Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat hirita-

koak dira eta "hilean behin asanblada irekiak" egiten dituzte; horrenbestez, edonork parte har dezake. Azaldu dutenez, "...euskara teknologiaz batus, bizi garen aroko gizartearen ahalik eta esparru gehien euskaratzea dugu helburu, esparru horietako garrantzitsuenetakoa internet dela ulertuz. Denbora gutxian euskarazko ikus-entzun bilduma ikaragarria bilakatu da: film

«Udarako
1.000 euskarazko lan
eskaintzeko asmoa dute
sortzaileek»

klasiko zein modernoak, telesailen artean animazio eta euskarazko itzulitako telesail arrakastatsuenak, dokumentalak...".

Egileen esanetan "gaur egun, euskaraz on-line film, telesail edo dokumentalak ikusteko dagoen webgune bakarra da, alor honetako lehen webgune euskalduna". Gainera, gura duten guztiak, edonondik, ekimenean parte har dezaketela jakinarazi dute: filmak argitaratuz, iruzkinak idatziz e.a. o

Uribe Kostara sari gehienak
Rise to fall, Randy Mandys eta Zaunka
taldeak irabazle Leioako Pop-Rock Lehiaketan



Irabazle izandako talde guztietako kideak

Hilaren 8an eta 9an egin zen IX. Leioako Pop-Rock Lehiaketako finala. Barikuan metal atalari dagokion azken norgehiagokan Rise to Fall uribekostarrekin, Cardiac suitzarrak eta Infamia errioxarrekin jardun zuten eta eskualdeko taldeak eskuratu zuen lehenengo postua (1.800 euro, eta beste).

Hurrengo egunean, pop-rock ataleko taldeen txanda izan zen eta amaierako lehian jardun zuten Randy Mandys frantziarren, The Electric Wasted kataluniarren eta Those Radios berangoztarren artean frantziarrek lortu zuten lehenengo saria (1.800 euro, besteak beste).

Aurtengo lehiaketan talde andanak hartu du parte, alde batetik, metal atalerako 26 talde aurkeztu ziren eta, bestetik, pop-rock atalean 88 taldek eman zuen izena. Bestalde, Lehiaketako sari nagusi orokorra pop-rockeko irabazleak, esan legez Randy Mandys-ek, eskuratu zuen. Amaitzeko, Zaunka talde getxoztarrak talde gonbidatu legez eskaini zituen kontzertuak azken txanpako egun bietan eta eurentzat izan zen Euskara saria (600 euro). Horrenbestez, sarietako asko eskualdean lotu dira, Uribe Kostako taldeek irabazi zituzten-eta. Bejondeizuela! o


diskoak

Haikua
Sagarroi
Sagarroi ekoizpenak



Iñigo Muguza eta bere taldeak beren bostgarren diskoa kaleratu berri du. Lana auto-ekoiztua izan da Sagarroi Ekoizpenak izenpean eta Andoaino Garate estudioetan grabatu dute. "Haikua" hamairu kantuz osatuta dago eta modu akustikoan grabatua izan da. Dagoeneko aurkezpen kontzertuak ematen hasi dira.

The Kluba
The Kluba
Oihuka



Juantxo Skalari egitasmo berriarekin dator, Iruñearekin bere anaia Perurrekin batera Skalariak talde ospetsua gidatu ondoren, etapa berri bati eman dio hasiera The Klubarekin. Lanak Skalariak dakar gogora baina berrituta, ikuspegi zabalagoa eta ikuskizunari eta originaltasunari garrantzia emango dion zuzenekoaz.

20 Hatz proiekt
Iñaki Plaza
Baga Biga Records



Iñaki Plaza eta Ion Garmendia musikariek bere lehen lana kaleratu dute. "20 Hatz proiekt" azken urtetan elkarren artean bildu dituzten musika esperientzien, lanen eta bidaien laburpena da eta Euskal Herriko folklorearen eritimoen aberastasunari eman dioten garrantzia datza; folk hitza irauli, eta tradizioa esperimendutik aztertu eta gauzatu dute.

diskoa >
Lor rock estiloan

Elorriko hirukoteak hirugarren lana plazaratu du, *Rock Terapia*. 1998an 14 urte zituztela Lander Irazola, Kimetz Blanco, Ramiro Unceta eta Kimetz Zenitagoiak osatutako taldeak gogoko zituzten kantuen eta doinuen bertsioak joz ekin zioten musikaren amets bidari. Metalaren eraginpean kaleratu zituzten lehenengo disko biak *Lor* (2004) eta *Bakoitzari Berea* (2006), ostera hirugarrenak rockaren indarra eta melodien dantza dakar. Izan ere, bigarren lana kaleratu zutenetik Zenitagoiak taldea utzi zuen eta hirukote bihurtuta eta ordurako musika munduaren ezagutzat sakonago batez lan barri honetan esan liteke zelanbaiteko beste bide bati ekin diotela.

Informazio gehiago:
www.myspace.com/lormusika

diskoa >
The Pub Ibiltaria

Oskorrik The Pub Ibiltariaren hamahirugarrena eta azkenekoa kaleratu zuen hil hasieran Elkarregaz. Orrialdeotan lehenik ere jakinarazi genizuen diskoa izango zela The Pub Ibiltariaren azken oparia eta horri eusten jarraitzen dute taldekideek, buru duten Natxo de Felipek adieraz duenez, "nostalgia eta penarik barik". Kantaldietara batutako jendearen laguntzagaz grabatutako 13 disko utzi dizkigute, 226 euskal abesti berreskuratu dituzte ahanzturatik, eta hamaika bizipen kantuz gogoratuko ditugu aurreratzen...

Informazio gehiago:
www.oskorri.com

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalegaz bat)
Tf. 94 491 23 79
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

Uuribefm
fm 107.8
Gaitz irratia

[liburuak]


Txorierriko literatur lurrina Ekainaren 5etik 7ra bitartean **Literaturia** jardunaldiak antolatu dituzte **Larrabetzun**

Uribe merindade zaharretik urten barik, eskualdetik alboko ibarrera egingo dugu salto, Kostatik Txorierrira; gugandik urrunen dagoen azken horretako udalerrira, Larrabetzuko literatur lurrinari segika.

Orain dela 5 urte, literaturarekiko zale-tasunak bultzatuta, Literatura Eskola sortu zuten Larrabetzun, eta badira urte bi eskolak (urritik ekainera, hilean behin, zapatu goizez) Euskal Herriko hainbat txokotara zabaldu dituztela. “Euskarazko literaturari, zein munduko literaturari buruz gehiago ikasteko eta ezagupena trukatzeko bidea” egin dute urte hauetan: 50 bat literatur gaitaz hausnartu eta iritziak elkar banatu, 35 bat hizlariren berbaldiak prestatu eta goza-

«Literatura Eskolaren 5. urteurrena jendartera zabaltzeko asmoz»

tu, 250 bat “literatura-ikasleren” jakinmina asetzen ahalegindu etab. Orain, bosgarren urteurrena ospatzeko asmoz, egindakoa “jendartera zabaltzea, jendaurrera eroatea” eta literaturzaleakaz konpartitzeko ordua heldu da. Hala, Literatura Eskola gidari eta herriko; ibarreko, zein lurraldeko beste hamaika lagunuen ekarpenagaz, Literaturia jardunaldiak antolatu dituzte ekainaren 5, 6 eta 7rako Larrabetzun. Halere, jardunal-



Ekainaren 5etik 7ra izango dira jardunaldiak

diakaz loturiko beroketa saioak gauzatu dituzte dagoeneko, berbarako Baiona, Basauri eta Txorierriko zenbait udalerritan.

Bestalde, jardunaldion asteburu nagusiari dagokionez, hurrengo ekitaldiak iragarri dituzte: salmenta gunea (urte hasieratik hona argitaratutako euskal eta euskaratutako literatura lanak; argialetxe nagusien partaidetzagaz), idazle-irakurle mahainguruak, antzerki emanaldiak, errezitaldiak, musika kontzertuak, *Blogak&Letrak* berbaldi multzoa, *Poetube* saio berezia, *Bi hitz: beats+bits* egitasmoa etab. ○

Egitarau osoa:
www.literaturaeskola.org
www.larrabetzu.org/literaturia

liburuak



Torrepeko zaldunak
Alaitz Olaizola
Erein

Torreondoko eta Torregertuko biztanleak ez ziren batere ondo konpontzen. Behin, zaldun gorri bat eta zaldun berde bat Torrepe mendira iritsi ziren. Herri bietako biztanleek, beren asmo txarrak bideratzeko asmoz, zaldunen adiskide egitea erabaki zuten. Umeentzako literatura.



Gertakarien urtzea
Luis Garde
Alberdania

Behaketa da Luis Garderen azken poesia liburuaren gakoa. Behaketatik, interpretazioak sortzen dira, eta interpretazioetatik poesia. Egunkarietako barrietan aurkitu du Gardex poesia. Inguruko gertakarien urtzea begirada sortzailearen emaitza da.

[kirola]

Lutxo Pizarro > Mundialitoko koordinatzailea

“Aurton andrazkoen Mundialitoaren finala ere San Mamesen jokatu da”



Pizarrok adierazi duenez ekimena ezingo litzateke antolatu (350.000 euro) erakundeen diru-laguntza barik

Diru-distirarik ez daukaten hamaika kolore bizitako izarren mundu mailako futbol txapelketa, Lamiakoko Mundualitoa, ekainaren 6ko (12:00-18:00) inaugurazio jaigaz hasiko da: Amerikako eta Afrikako folklore taldeak, talde partehartzaileen desfilea, ohorezko sakea Athletic-eko andrazkoek egingo dute, txitxiburruntzia e.a. Aurten bosgarren ekitaldia beteko duen ekimena ASMUL (Lamiakoko Kulturantzun Elkarte) elkartearen oinordeko da eta bertako kide eta ekimenaren koordinatzaile orokorra den *Lutxo* Pizarro txiletarrak adierazi legez, “ekimenaren jaiotza *immigrazioaren hazkundeari lotuta dago, etorkin asko eta asko Lamiakoko zelaian (Udalarena eta BBKrena) batzen ginen eta udal zinegotzi batez erdi txantzetan “mundialtxo” bat antolatuzko kontua urten zen, eta egin genuen*”. Pizarrok Hezkuntza Fisikoa eta Kirol Medikuntza ikasi zituen eta Valladolid taldeko prestatzaile ere jardun zuen. Kirolerako maitasunak Mundialitoa biziki eta pasioz bizitzera bultzatzen du, eta aurten errokez, ilusioz eta harro berba egingo du: “urte urte profesionalizatzen joan da

txapelketa; iaz finala San Mamesen jokatzeko lortu genuen, aurten ere han egingo da (uztailak 4, 15:00); baina benetan goraiatzekoa dena hurrengoa da, aurten andrazkoen finala ere han egingo dela, andrazkoen txapelketa bultzatu gura dugu aurten, hori da aurten erroka nagusia, eta horren albotik, emakumearen alde lan handia egin dugu; Afrikako taldeek ere parte hartuko dute, zorionez!”.

«Espero dugu aurten San Mames leporaino betetzea, ea 35.000 batzen garen»

Andrazkoen Mundialitoan 12 selekzioek eta talde mixtok parte hartuko du (Euskadi, Deustu, Urko-Sopela-, Bolivia, Ekuador, Paraguai, Peru, Brasil eta konbinatuak) eta gizonetakoan 16 taldek (Argentina, Brasil, Paraguai, Peru, Bolivia, Ekuador, Kolonia, Honduras, Errumania, Irlanda, Ghana, Boli Kosta, Ekuatore Ginea, Kamerun, Senegal eta Maroko). Pizarrok dioenez, “*espero dugu aurten San Mames leporaino betetzea*”. Sailkatze faseak ekainaren 7an hasiko dira, partidak asteburu jokatu dira Sarriena-ko (Leioa) zelaian. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris.s.l. SERVITEC



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Carlos Baiges > “Getxoko Antzerki Eskolako zuzendari artistikoa eta irakaslea”

“Saiatuko gara ‘Under Brecht. Un cabaret’ leku gehiagotan aurkezten, merezi du eta”



96 Unicornios taldeko kideak

Duela egun batzuk, Getxoko Antzerki Eskolako 96 Unicornios taldeak bere estreinako lana aurkeztu zuen Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Carlos Baiges “Under Brecht. Un cabaret” antzekizunaren zuzendari ere bada, eta 96 Unicornios taldeagaz eskolan diplomatu barri diren ikasleak ezagutuak izateko aukera bilatu gura dutela azaldu digu. Aurten, gainera Bertolt Brecht-en lan batean oinarritu dira.

—Nola sortu zen 96 Unicornios antzerki taldea sortzeko ideia?

—1996an jaio zen taldea da. Antzerki Eskolako ideia izan zen. Konpainiak eskolan diplomatzan den jendea ezagutzera ematea du helburu. Beraz, kurtso amaierako lanak aurkezteko erabiltzen dugun antzerki taldea dela esan daiteke.

—Nondik dator 96 Unicornios izena?

—Adarbakarra orain dela urte asko gустuko genuen figura bat zelako eta gure logotipoetan zegoelako, gure sinbola zela esan daiteke. 96, ordea, urteagatik.

—Duela aste batzuk “Under Brecht. Un

cabaret” obra estreinatu zenuten, lehenengo aldiz, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Konta diezagukezu zertan datzan?

—Bertolt Brecht-en “Dos centavos” operan oinarrituta dagoen obra da gurea, eta abestiek giroten dute, baina obrarenak ez diren abesti batzuk ere badaude. Tramari dagokionez, *madame* bat buru duen antzinako kabaret edo burdela da. Bertan bost neskak egiten dute behar, eta lokale-ra heltzen den gaizkilea den pertsonaia dago. Trama gizon honek, inguruko jabe denak, horietako neska bat eroatea eraba-

kitzen duenean hasiko da. *Madame*-ak mendekua hartzeko beharra sentituko du, alkatea deitu eta bere esku dagoen guztia egingo du mendekua gauza dadin. Giroari dagokionez, apurka-apurka desagertzen doan kabareteko musikak lagunduta egongo da.

Gu saiatu gara Bertolt Brecht-en aldentzearen ideia hori modu barritzaile batean helarazten.

—Zergatik Bertolt Brecht-en obra bat?

—Getxoko Antzerki Eskolak bere ideologia eta pedagogikoki laugarren kurtsoa ulertzeko daukan moduagatik. Ikasleek

«Aurtengo taldea oso indartsua da, ahotsari dagokionez»

autore ona aurkeztu behar izaten dute; beraz, gure eginkizuna Shakespeare, Molière edo kasu honetan, Brecht bezalako autoreak erabiltzea da. Dena den, momentu horretan daukagun taldearen arabera eta bere ahalbideak kontuan hartuta aukeratzen ditugu obrak. Oraingoan, talde oso indartsua, ahotsari dagokionez, geneukanez, Brecht-en testuak batera musikala egiteko aukera egon da.

—Antzoki gehiagotan aurkezteko asmoa daukazue?

—Guk eskari asko bota ditugu eta orain erantzunen zain gaude; baina egia da, behin espektakulua aurkeztuta konpainiak bere helburua betetzen duela eta gero bakoitzak bere bidea egiten du. Hala ere, emanaldi bi egin ditugu eta hori oso gutxi iruditzen zait lan bat garatzeko, horrenbesteko ahaleginaren ostean. Gainera, nire ustez, lan handia egiten dugu, eta ez legoke txarto proiektuari ibilbidea luzatuko bagenio, saiatuko gara aukera gehiago lortzen, merezi du eta. ○

Nik ikastaro berrian hartuko dut parte.*
*yo me apuntó al nuevo curso.

AISA
Nuevo curso de acogida lingüística para nuevos y nuevas getxotarras

Getxo
Cultura y Espiritualidad

EUSKARA
EUSKARA

HADE

INFORMAZIOA
Gure eskolara, Tel.: 94 400 61 88 (Zuzend.) | Laguntza eskolara, Tel.: 94 400 61 88 (Zuzend.) | J. A. Aretako eskolara, Tel.: 94 400 61 71 (Zuzend.)

Unai Alonso > Fadura

“Isildu dira pilota hotsa eta pilotazaleen istorioak”



“Ordutik urte asko igaro da, eta Fadurako frontoiak iraganean izan zuen garrantzia eta distira joan dira”

Gogora datorzkit umetako garaiak, Ikastolatik Fadurara gindoazenean pilotan jokatzera. Lehen pauso haiek, Joseba Arteta pilotazale amorratuagaz eman genituen. Beranduago, Andra Mariko frontoia eraiki zuten, eta guztiok poliki-roldegi barrira aldatu behar izan genuen. Ordutik urte asko igaro da eta Fadurako frontoiak iraganean izan zuen garrantzia eta distira joan dira.

Azken urteotan Getxoko Udalak Angeluko kirolariakaz topaketa batzuk antolatu ditu. Angelutarrek entzunak

zituzten Fadurari buruzko kontuak. Hala ere, instalazioak ikustean harrিতuta gelditu ziren; izan ere ez dira aspaldi bezain ikusgarriak eta konponketaren bat edo beste beharrezkoak dituzte. Paddle pistak frontoi barruan ikustea ere arraro egin zitzairen. Aspaldiko garai haiek zituzten buruan, frontoi nagusian Zesta Punta eta Pala profesionala jokatzen zirenekoak. Frontoiaren artetik zuriz jantzitako pilotazaleak, zerrauts eta gasoil usain artean, euren jokaldiak, partidak... komentatzen zituzten garaiak.

Isildu dira pilotaren hotsak eta pilotazaleen istorioak.

Agian garai haiek berpizteko pilotaleku egokia beharko genuke, pilota telebistan ikusteaz gain praktikatu ahal izateko. Gaur egun, futbolaren nagusitasuna ikusita, garrantzitsua iruditzen zait geurea dugun kirol honi bultzada ematea, horrela, etorkizunean, gure umeek pilotan jokatzeko aukera ere izan dezaten. Getxon Pilota Taldea eta afizioa baditugu, jokatzeko leku ona baino ez zaigu falta. ○

Toponimoa > **Fadura**

Fadura (Fadura):

Gaur egun fadura izena kiroldegia izendatzeko erabiltzen badugu ere antzina zabalagoa zen, Mimenegatik egungo lekuraino. Izena argia da, hitz arrunta da eta. Aipuetan sarri itzulita ageri zaigu vegas moduan edo bere izenkidea den ibarra hitzak ordezkatuta.

Fadura (Kiroldegia):

Egungo kiroldegiaren aitzindaria Estadio Vizcaya izan zen. Egungo eraikuntzak 1971n inauguratu zituzten orduko Espainiako printzipeek.

Getxoko leku izenak liburutik ateratako informazioa

Motagane Txakolina

Janari eta musika ona Akarlandan



Oier Kamiruaga, Motaganen

Leioako unibertsitatea pasa eta metro gutxira, Akarlanda parkean, Motagane Txakolina jatetxea dago. Zuhaitz eta zelai artean ezkutatuta dagoen txoko eder honek, udan zein neguan, familia zein lagunartean gustura bazkaltzeko edo afaltzeko aukera ederra ematen du. Pintxo hotz eta beroak dituen taberna eta neguan erabiltzen duten jantoki txikiak gain, 100 lagunetik gora hartzen duen jangela handia eta egun eguzkitsuetan gozatzeko terraza dauka. Oier Kamiruagak, Alex Lobato bazkidearen laguntzagaz, zuzendu du Motagane azken hiru urteotan, 30 urte baino gehiago joan dira, gurasoek jatetxea abian ipini zutenetik.

Tradizioari eta bertoko lehengaien kalitateari uko egin barik, eskaintza berezia ematen saiatzen dira Motaganen: “Astean zehar, eguneko menua eta karta dauzkagu.

Asteburuetan dastatze menua eta indaba janak egiten ditugu. Honez gain, oilasko-denda eta umeentzako menu berezia dago. Parkean zehar ginkana egin dugu umeentzat; asko dibertitzen dira eta gurasoek esker-tzen dute”. Jatekoaz gain, ardo aukera polita ere badago: “Denetarik daukagu, nahiz eta txakolina den gure berezitasuna. Enologia taldea egin dugu eta hilean behin ardo-dastatzeak antolatzen ditugu”. Hirugarren urtez, jazz denboraldia antolatu dute eta maila handiko taldeak hurreratu dira: “Ostinalero egiten ditugu kontzertuak; arrakasta izaten dute, atsegina baita afari goxo batez musika ona entzun ahal izatea”. Hilaren 30ean, New Yorkeko David Hill Yard & The Rocksteady taldea izango da.

Leioa-Unbe errep. 34, ERANDIO
Tf. 94 467 0007 / www.txakolimotagane.com

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

gOZOLABEA
galdaretxe
• Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
• Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
• Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
• Telletxe 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
• Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
jatetxeaa
• gosariak
• txuletoia • bakailoa
• arrain freskoa
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI
Harategia eta txarkuteria
AREETA
LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25

BASALBO BASERRIA

JATETXEA
TF./FAX: 94 491 34 91
MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI -
GETXO
basalbobaserria@yahoo.com



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAGAZ
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z.g. (Sarrikobasogaz bat)
Tf. 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z.g.
Algorta

*Tf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Kaosa da nagusi zure logelan, baita zure buruan ere; argi ibili ez baduzu gura arazoak okerrera egitea. Gauzak lasaitasun osoz eta patxadaz hartu, ez saiatu dena batera egiten, bestela dena erdizka lagako duzu.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Egun onak, erdipurdikoak eta txarrak izaten dira; zu gauetik egunera aldatzen zara. Ez da erraza 360ko bira ematea, baina komeni zaizu gauzak patxadaz hartzea eta besteek esaten dizutenari ez erreparatzea.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ez zaude zure unerik onenean, baina ez galdu itxaropena, pentsa ezazu etorkizuneari gauzak hobera egingo dutela. Bitartean, saiatu gauzen alde ona bilazen, aurkitu baietz!

META



(Irailak 17 urriak 16)
Etxeko baten bat nahiko urduri dabil aspaldi honetan, eta zuri botako dizu erru gutzia. Ez txarto hartu, eta beragaz lasai berba egiten saiatu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zergak, bankuko gutunak, zerga gehiago... zure etxeko buzoiak ez dizu barri onik ematen aspaldion. Faltan dituzu etxekoek eta lagunak bidaltzen zizkizuten eskutitz polit horiek. Baina zer gura duzu? Zuk ere inoiz idatzi beharko diezu, ezta?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zure egoera dela eta, dena alde batera utzi eta munduko beste puntara alde egitea pentsatzen zabilta. Ez dakizu zenbaterako; baina bai, zure bizitza aldatu gura duzula, daukazuagaz ez baitzaude gustura. Anima zaitetz!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzu, hauek zure etorkizunerako funsezkoak dira; beraz, patxadaz hartu eta ondo pentsatu egin behar duzuna.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Datorren astean lagunaren ezkontza, oraindino arropa erosi barik, ez baduzu horretarako denbora hartzen, amamaren ezkontzako jantzia soinean ikusi beharko zaitugu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Aspaldi honetan, zure ingurukoek ez zaituztela asko errespetatzen uste duzu. Ez utzi zure irizirik eta ideiak zapaltzen; zuk ere baduzu zer esan, eta laster baino berandu entzun beharko dizute.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Laster zure urtebetetze eguna eta ederki ospatzea pentsatuta zenukan, baina batek baino gehiagok ezin izango dela egon esan dizu, beraz zer egin ez dakizula zabilta. Ez kezkatu, beti topatuko duzu baten bat.

IRATZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)
Zure inguruko norbaitek ezusteko polita emango dizu laster. Hala ere, kontuz ibili, dena ez da ona izango eta; kontuz zapaltzen duzunagaz, hanka apurtzeko arriskua izango duzu eta.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Garai ona duzu desirak aurrera eroateko, baina erabakiak hartu aurretik ondo pentsatu, bidean ezusteko txarren bat izan gura ez baduzu.



KOSKA
irratia 108 FM

www.koskairratia.com

denborapasa

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1						■				
2						■				
3						■				
4				■						
5								■	■	■
6	■	■	■							
7							■			
8					■					
9										
10										

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Lokarri sendoak. Era. 2. Arabako lekua, Gasteizen. Makur. 3. Zer aldetarat. Bizkaieraz dio, batuan idatzirik 4. Baita ere. Europako hegoaldeko estatu bateko hiriburua. 5. Begira, baina ezkutuan. 6. Bizkaiko hiria. 7. Toka, dakit. Behorra arreske. 8. Pirinioetako lurraldea. Antzera. 9. Zezen zikiratua. Ipar., atsegin handiko egoera. 10. ... hartu, lokartu. Zatitu gabeak.

Goitik behera

1. Zentzuz. Gaitz, korapilatsu. 2. Ondra, Mahatsaren zuku. 3. Ontziaren ertz. Portua. 4. Ipar Euskal Herrian, era. Pluralean, urte kopuruak. 5. Zorrak ordaindua. 6. Euskal mitologiako pertsonaia. 7. Italiako hiria, ozpinak famatu duena. Galegoz, gu. 8. Ogi egile. Nitrogenoa, konposatueta. 9. Guztia. Azkona. 10. Ipar Euskal Herrian, zoriontsu. Ale-landareak.

Soluzioak

K	V	O	S	O	K	V	O	T		
V	I	H	O	T	V	I	D	I		
O	Z	I	N	V	N	V	R	V		
L	E	I	E	I	V	I	K	V	Z	
O	G	N	V	H	U	D				
			N	V	L	V	L	E	Z	
S	V	N	E	T	E	V	E	E	E	
O	N	I	D	I	A	T	R	O	N	
R	E	O		I	V	H	E			
U	D	O		M	O	K	A	K	S	



ANGEL INTXAUSTIK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > lagun birentzako bazkaria



Nor da?

- Athletic-eko "izarra" da gaur egun
- Errioxan jaio zen 1985. urtean
- Aurrelaria denez, golak sartzea da bere egitekoa

> Aurrekoaren erantzuna: Barbara Goenaga.

> Irabazlea: **Ane Monasterio Garde***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g. Algorta
Tél. erreserbak: 94 460 64 13

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

Bittor Egurrola

ALGORTAKO MAMARRO GOBELAN, 1947AN

Ereagako hondartzan hasi zen jokatzen Getxoko auzoarteko futbol txapelketa, 1944-1945 denboraldian. Mamarro, Algortako San Nikolas auzoko futbol taldea zen. Lehenengo finala Ereagan bertan izan zen, baina ondorengoak Gobelan. Argazkiko taldea da hirugarren denboraldiko finala jokatu zuena, Portu Zaharraren aurka. Lehenengo zatian Mamarro izan zen nagusi (3-1), baina bigarrenean Portukoek buelta eman zioten partidari, 5-3 irabaziz. Dena dela Mamarrok bederatzi jokalarigaz jokatu zuela esan behar da; beste biek (federatuak ziren) egun berean, arrastian, partida zeukaten, eta horregatik, beraien klubak ez ziren baimenik eman goizean Gobelan jokatzeke. ○

Ezkerretik eskuinera:

Zutunik: Iberto Dominguez, Bilbao, Fernando Ortiz "Pelotari", Fran (delegatua), J. Diaz, Ignacio Bastardo, Roman Intxaurtieta.
Makurtuta: Juanillo, Felix Hormaza (atezaina), San Martin, Andres Intxausti.

KATIXA AGIRRE > Idazlea

“Pertsonak dira errespetatu behar direnak, ez ideiak”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan

Praktikoa eta umoretsua.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Bere garaiari aurre hartu dion edozein emakume.

Zer izan gura zenuen txikitan?

Detektibe pribatua.

Zerk ematen dizu beldurra?

Txakurrek, ez dakit zergatik.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Lost in Translation (Sofia Coppola). Neure buruaren bila bertan galduta egon nahi nuke.

Haurtzaroko oroitzapen bat?

Gasteizko jaiak, gurasoekin.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Ez dut animalia izan nahi, gorroto ditut animaliak.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?

Greziara joango nintzateke berriro; asko gustatu zitzaidan dena, daukan historiagatik batez ere.

Gehien gorroto duzun topikoa?

Idea guztiak errespetatu behar direla esaten duen topiko hori gorroto dut. Ez dira guztiak errespetatu behar, batzuk ez dira errespetagarriak. Pertsonak dira errespetatu behar direnak, ez ideiak.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Gasteizko alde zaharra, bertan emandako ordu guztiengatik. Dena den, hondartza ere asko gustatzen zait.

Parranda politenak non?

Hiri ezezagun batean. ○

LABURREAN— Joan den otsailean aurkeztu zuen Katixa Agirrek (Gasteiz, 1981) bere azken liburua, *Habitat* izeneko. Etxean, “*gure habitat idealean*”, gertatutako hainbat istorio kontatzen ditu sei ipuinetan zehar. Baina ez da hori Agirreren lan bakarra. *Sua falta zaigu* eleberria eta *Paularen seigarren atzamarra* haurrentzako ipuina kaleratu zituen 2007an. Deia, Argia, Berria eta beste zenbait komunikabidegaz kolaboratzen du. Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da, Komunikazio eta Publizitate sailean. Bere iritzi era hausnarketak katixagirre.com blogean aurki ditzakegu.

XXVI feria de artesanía



XXVI. eskulangintza azoka

elcal.net

2009ko ekainaren 5, 6, 7 de junio de 2009 • Pza. Estación de Las Arenas

11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00h. sábado / Iarunbeta 11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:30h. Entrada gratuita • Sarrera doheirik